

ek!

eta kitto!
euskara elkarteak

2026ko maiatzak 8 · 1395 zenbakia

ASANBLADAK SARETUZ

PROGRESIBOEN HILABETEA

2MÓ 259€

batzuk eguzkitakoak izan daitezke

Kontsultatu optikan kanpainaren ezaugarriak.



MULTIÓPTICAS

943 20 05 22
Bidebarrieta, 2.
EIBAR



hitzordua
eskatu



www.multioplicas.com



R.F.S. 93/25

eta kitto!
euskara elkartea

Euskeraz
primeran!

2026ko

maiatzaren 18tik 29ra

Euskeraz
primeran!

NIREKIN

HASI

EUSKARAZ

eta kitto!
EUSKARA ELKARTEA



Jarrai iezaguzu!

BIDEOAK YouTuben ikusgai



www.etakitto.eu



Maiatzaren 29 eta 30eko asteburuan Euskal Herriko Gaztetxeen Topaketa egingo da Elorrion. Egitasmoaren berri emateko gaur, ostirala, 18:30ean, Debabarreneko zenbait asanbladatako kideak Eibarko Gaztetxean izango dira. Eurekin egon gara topaketan inguruan eta gaztetxeen egoeraz berba egiteko.

eta kitto!
euskara elkarteak

ARGITARATZAILEA

...eta kitto! Euskara Elkartea

HELBIDEA

Urkizu, 11 · 20600 Eibar

TELEFONOAK

943 20 67 76 / 943 20 09 18

ASTEKARIAREN E-MAILAK

erredakzioa@etakitto.eu

komunikabideak@etakitto.eu

publizitatea@etakitto.eu

aldizkaria@etakitto.eu

ELKARTEAREN E-MAILAK

elkartea@etakitto.eu

normalizazioa@etakitto.eu

ERREDAKZIO-KONTSEILUA

Ana Aizpurua, Naia Aizpurua,

Irati Alvarez, Ekhi Belar, Ander

Fernandez, Silbia Hernandez,

Iruene Jaio, Yanire Sagredo,

Oihane Zabala

ADMINISTRAZIOA

Naiara Esnaola

KOORDINATZAILEA

Ana Aizpurua

ERREDAKZIO-BURUA

Silbia Hernandez

DISEINU ARLOA

Iruene Jaio

JATORRIZKO DISEINUA

Maku Oruezabal

HIZKUNTZA ARDURA

Maidar Aranberri

PUBLIZITATEA

Ander Fernandez

TELEFONOA

943 20 67 76

AZALA

Silbia Hernandez

BANAKETA-ARDURA

Idoia Labado

TIRADA

7.800 ale

INPRIMATEGIA

GERTU koop. (Oñati)

COPYRIGHT-A

...eta kitto!

LEGE-GORDAILUA

SS/430/92. ISSN: 1132 - 1679



Eibarko Udalak eta
Gipuzkoako Foru Aldundiak
lagundutako aldizkaria



EIBAR
Udala | Ayuntamiento



Gipuzkoako Foru Aldundia

("...eta kitto!" ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik)

Eskutitzak



SD Eibarko Nesken taldeak gure babesa behar du

Larunbat honetan, 16:00etan, SD Eibar-ren Nesken taldeak Alhama CF taldearen aurka jokatu du. Partida garrantzitsua da mailari eusteko, eta eibartarrek puntuak behar dituzte Lehen Mailan jarraitzea matematikoki ziurtatzeko. Horregatik da hain garrantzitsua zaleen babesa denboraldiko une erabakigarri honetan. Lehen Mailari eustea lortu behar dugu. Horregatik, partidura joan eta harmailetatik euren babesa adieraztera animatzen ditut futbolzale guztiak: gure jokalarien konpromisoak eta esfortzuak merezi dute. Eibar emakumezkoen taldearekin dagoela erakusteko aukera paregabea da. 12. jokalaria izan behar dugu, gure animo eta babesarekin.

Lehen mailan gaude, lehen mailan jarraitu nahi dugu, eta harro esaten dugu lehen mailakoak garela. Aupa Eibar! Aupa Eibarko nesken taldea!

Elena Ibañez, Berdintasun Arloko zinegotzia

Hortik esanak



“Arreta oinezkoak/atención peatones” oharra agertu da auzoko kale bateko lanetan. Gezi bat ere badu kartelak, eta berari esker lortu dut ulertzea pasabidea nondik den adierazi nahi zuela. Elebidun, bietan ulertezin.

Ez dakit nork egin duen afixa: adimen artifizialak, euskara ikasten hasi berri den norbaitek hiztegia erabilia, edo itzultzaile neuronalak. Berdin dit, ez da-eta lehenengo, hamaikatxo itzulpen oker ezagutzen ditugu, “eman oharra” azkenetakoa, esaterako. Eta aspaldiko “atsedenik ez, drogarik gabe” famatua akorduan.

Aste berean, Euskadi Irratian Jaurlaritzako sailburu bati egindako elkarrizketa entzun dut. Uf! Zein txarto euskaraz! Gaztelaniaz onartuko ez litzaiokeena. Ez dut gustuko inor seinalatzea euskararen kalitateagatik, baina ez zen izan gramatika akats ilara soilik, ez zen ulertzen zer azaldu nahi zuen. Mezua ezin transmititu, arreta oinezkoak –entzuleak–, anabasari baino ezin zitzaiolako jarri. Beti oharra ematen.

Irrati-entzuleok Drogarik gabe, atsedenic ez esaldia gure egin eta “drogarik gabe, entzun ez” aldarrikatzeotan gaude, amorruek barrutik jan ez gaitzan.

LEIRE NARBAIZA, ARGIA-n

Gure aurrekoek erabiltzen zuten euskera

POTIA POTE, NAHIZ PIPAR ETA NAHIZ TOMATE. → Oparitutakoari ez zaiola muzin egin behar esan nahi duen erretra. Gaztelera zko kidea 'a caballo regalado no le mires el diente' izan daiteke. “Potia pote, nahiz pipar eta nahiz tomate, eta laga nahi ez badozu”.

POTIÑA. → Txalupa. "Arraiñetara urtentzen eban badaezpadako potiñ batzuetan".

1959

'Merzedarietako' ikasle talde bat

Maiatzean egindako argazkian, Jardinieta kalean egon zen Ntra.

Sra. de la Merced (*Merzedariak*), nesken eskolako ikasle talde honetan, Alicia Alberdi,

Teresita Argaya, Milagros Arrate, Cristina Lasa, Mari Feli Larrarte, Teresita Sainz, Libe Sarasua, Ana Mari Larrañaga eta Mari Asun Murua daude,

besteak beste

FOTOPLAZAOLA..



Farmaziak

BARIXAKUA 8

EGUNEZ | Castaño (J. Etxeberria, 7)

ZAPATUA 9

EGUNEZ | Azkue (J. Etxeberria, 4)

DOMEKA 10

EGUNEZ | Castaño (J. Etxeberria, 7)

ASTELEHENA 11

EGUNEZ | Lekunberri (Isasi, 31)

MARTITZENA 12

EGUNEZ | Azkue (J. Etxeberria, 4)

EGUAZTENA 13

EGUNEZ | Elortza (Juan Gisasola, 18)

EGUENA 14

EGUNEZ | Castaño (J. Etxeberria, 7)

BARIXAKUA 15

EGUNEZ | Mendinueta (Urkizu, 6)

GAUEZ BETI, 2026an,

Elortza (Juan Gisasola, 18)

Telefono jakingarriak

SOS deiak	112
Pegora	010
Udaletxea	943 70 84 00
Portalea	943 70 84 39
Udaltzaingoa	943 70 84 24
Mankomunitatea	943 70 07 99
Debegesa	943 82 01 10
KIUB	943 20 38 43
Kirol Patronatoa	943 20 32 40
Epaitegia	943 03 34 00
Iberdrola	900 17 11 71
Naturgas	902 12 34 56
DYA Larrialdiak	943 46 46 22
Gurutze Gorria	943 22 22 22
Eibar Ospitalea	943 03 29 00
Mendaro ospitala	943 03 28 00
Anbulategia	943 03 25 00
Torrekoa	943 03 26 50
Errepideak	902 11 20 88
Ertzaintza	943 53 17 00
Eusko Tren	944 33 33 33
Lurraldebus	900 30 03 40
Pesa	900 12 14 00
Taxiak	943 20 30 71 / 943 20 13 25
Andretxea	943 54 39 38
Alkohol. Anon.	629 14 18 74
Al-Anon / Alateen	650 26 59 63
Grupo Egun Bat (Jokozale	
Anonimo eta Familiak)	699 37 75 20

Hildakoak

- **M^o Asuncion Soto Lorenzo.** 77 urte. 2026-04-27.
- **M^o Lourdes Etxeberria Udaber.** 90 urte. 2026-04-29.
- **Petra Luengo Bobillo.** 97 urte. 2026-04-30.
- **Alberto Maguregi Astaburuaga.** 74 urte. 2026-04-30.
- **Jose Aristi Oruezabal.** 75 urte. 2026-05-01.
- **Ines Moreno Moncalvillo.** 94 urte. 2026-05-01.
- **Benita Gomez Cid.** 91 urte. 2026-05-03.
- **Jose Guillermo Manson Muniozgueren.** 65 urte. 2026-05-05.
- **Antonio Montero Herrera "Malaga".** 98 urte. 2026-05-06.

Oinarrizko eskubideak eskatu dituzte langileek Maiatzaren Lehenean

S.H. Maiatzaren Lehenean ehunka lagun mobilizatu ziren Eibarren, LAB sindikatuak eskualde mailan deitutako manifestazioan, etxebizitza eskubidea, kalitatezko zerbitzu publikoak, eta soldata nahiz pentsio duinak eskatzeko. Ondoren, herri-bazkaria egin zuten, eta Bizimina elkartekoek paella ederra prestatu zieten bertan bildutako 120 lagunei.

Argazkiak **LAB ETA BIZIMINA**



Argazkiak **SANTA KURUTZEKO JAI BATZORDEA**

Ederki ibili dira asteburuan, Santa Kurutzeko jaiak ospatzen

S.H. Aurreko domeka (maiatzak 3) Santa Kurutz eguna izan zela eta, bezperan hasi ziren hori ospatzen Gorosta eta Mandiola auzoko baserritarrak, goizean goizetik: Santa Kurutzeko ermitan meza ospatu eta, jarraian, bertaratu ziren guztiek hamaketako ederra jan zuten, Imanol Astiasaran eta Unai Andonegi triki-

tilariak girotuta. Eguerdian haurrentzako jolasak egin zituzten, besteak beste, eta herri-kirol erakustaldi bikaina eskaini zuten Oihana Fernandez de Barrena, Julen Alberdi, Jon Unanue 'Goenatxo III' eta Ainitze Zumetak. Ixua jatetxean bapo bazkaldu eta gero, erromeria egin zen. Santa Kurutz eguna ere ekitaldiz

beteta egon zen. Goiztiarrenak oinez igo ziren Santa Kurutzera, Urkizuko iturritik abiatuta. Meza eta hamaketakoa amaituta, Kezka dantza taldearen eta Usartza txistulari taldearen eskutik, dantza emanaldia egin zen. Eta haurrek ondo baino hobeto pasatu zuten Potx magoaren ikuskinarekin.

Santa Kurutzeko Jai Batzordeak antolatutako egitaraua bihar (zapata) amaituko da, Xabat eta Joanes Illarregi bertsolariekin Depor tabernan egingo den bertso-afariarekin.

*errenta
aitorpena?*
euskaraz!

zelan?

- autolikidazioan **euskaraz** egin nahi duzula esan

- mekanizatuan ordua hartzerakoan, eta aitortpena egiterakoan, **euskaraz** egin nahi duzula esan

- internet bidez errenta programaren **euskarazko** bertsioa deskargatu





Basalgoko proiektu eolikoa Batzar Nagusietan eztabaidatuko dute ekainean

S.H. Basalgoko proiektu eolikoari buruzko eztabaida egingo dute Gipuzkoako Batzar Nagusietan, ekaineko osoko bilkuran. Mahaiaik onartu egin du Elkarrekin Podemos-ek aurkeztutako ebazpen-proposamena eta, ondorioz, batzarkideek proiektuaren inguruan eztabaidatu eta bozkatzeko aukera izango dute. Proposameneari nabarmendu dutenez, herritar askok Basalgoko parke eolikoaren proiektuaren aurka egin dute. Izan ere, Eibarko Mendiak Bizirik elkarteak bultzatuta, 6.282 alegazio aurkeztu dira, eta hainbat udalek ere proiektuaren aurkako jarrera agertu dute.

Testuinguru zabalago batean, ebazpenak trantsizio energetiko "bidezko eta parte-hartzailea" defendatzen du. Gogorazi dutenez, 2022az geroztik Gipuzkoan parke eolikoak eraikitzeko 13 proiektu aurkeztu dira, eta adierazi dute askok eremu "desegokietan" kokatzeko asmoa dutela, biodibertsitatean, paisaian eta ondarean izan dezaketen inpaktuagatik.


Ebazpen-proposamenak hainbat eskaera jasotzen ditu. Besteak

beste, Foru Aldundiari eta Eusko Jaurlaritzari eskatzen die Basalgoko proiektuak eragingo lukeen eremuan uraren zikloa babestea eta nekazaritza zein baso-lurra zaintzea. Halaber, proiektu energetikoetan herritarren parte-hartze zabalagoa bermatzea eskatzen da. Bestalde, Foru Aldundiari eskatu diote fauna eta flora babestuaren kudeaketa-planak argitaratzeko, bereziki hegazti nekrofagoen eta kiropteroen planak. Eusko Jaurlaritzari, berriz, alegazio-prozesuan udalen kontrako jarrera eta aurkeztutako milaka alegazioak kontuan har ditzala eskatu diote.

Bestetik, ondare historikoari lotutako beste ebazpen-proposamen bat ere aurkeztu du Elkarrekin-Podemosek, Kalamua, Akondia, Arrate, Topinburu, Illordo eta Intxorta inguruko egiturak 'Babes Ertaineko Kultura-ondasun' izendatzeko espedientea abiaraztea eskatzen. Diotenez, Gerra Zibilean, eremu horiek funtsezkoak izan ziren Eibar eta Bilbo defendatzeko.

Udalak 'Etxean Gazte' proiektua abiarazi du

S.H. Eibarko Udalak *Etxean Gazte* izeneko proiektua jarri du martxan, gazteek etxebizitza eskuratzeko dituzten zailtasunei "irtenbide berritzaileak" bilatzeko, eta talentu gaztea herrian bertan atxikitzeko. Udalaren arabera, "gazteen lehia-kortasuna indartzea, eta haien zailtasunak etxebizitza eskuratzeko bide berriak aztertzea" da ekimenaren helburua. Proiektua Gipuzkoako Taldean 2026 deialdiaren barruan kokatzen da, gazteentzako aukeren erronkaren baitan, eta 2026ko ekainetik 2027ko maiatzera bitartean garatuko da. Guztira 26.040 euroko aurrekontua izango du: Gipuzkoako Foru Aldundiak 19.740 euro jarriko ditu dirulaguntza gisa, eta gainerakoa parte hartzen duten erakundeen artean banatuko da. Udalak berak hartuko du lidergoa eta kostuaren %55 (14.440 euro inguru); Debegeak eta Armeria Eskolak, berriz, 5.800 euro inguruko ekarpena egingo dute, batez ere laguntza teknikoaren eta lan espezializatuaren bidez. Udalaren arabera, proiektuak bi lan-ildo nagusi izango ditu: alde batetik, kanpoko adituen azterketa teknikoak kontratatuko da; bestetik, tokiko erakundeetako teknikariek zuzenean parte hartuko dute.





Lorategietatik ateratako 800 lore oparituko dituzte eguazten goizean Untzagan

S.H. Eibarko Udaleko Ingurumen Sailak, lorezaintza taldearekin batera, 800 lore ale inguru banatuko ditu eguaztenean (maiatzak 13), dohainik. Neguan herriko espazio publikoak apaindu dituzten lan-

dareak (krabelinak, biolak, pentsamenduak, bitxiloreak, mitxoletak, dragoi-muturrak...), oparituko dituzte, Untzagan, harmailen aldean, goizeko 11:00etatik 13:00etara (amaitu arte).

Bigarren eskuko azoka eta haurrentzat doako tailerra bihar Errebal Plazan

S.H. Udaberriko bigarren eskuko azoka egingo da bihar, zapatua, Errebal Plazan, 10:00etatik 14:00etara. Azokarekin batera, 3 eta 12 urte bitarteko haurrentzat tailerra eskainiko da, doan, 11:30etik 14:00etara (txandak bertan hartu beharko dira). Material birziklatuekin osagarriak eta apaingarriak sortuko dituzte.



Pagatxako emakumeek egunpasa ederra egin dute Elizondon

S.H. Elizondora txango kulturala egin dute Pagatxa emakume elkartekoen aste honetan, martitzenean, eta ederto ibili direla azaldu digute handik bueltan: "Goizean gidari batek Elizondoko kaleetara eraman gintuen, Dolores Redondoren *La Trilogia del Baztan* eleberrietako puntu nagusiak erakutsiz. Ibilbide interesgarri hau amaitu ondoren, zerbait hartzeko edo erosketaren bat egiteko denbora libreza izan genuen, Mugairira joan aurretik. Hango Urgain hotelean menu goxo bat dastatu genuen eta, arratsaldean, lorategi botanikora joan ginen, bertako zuhaitz, eraikin, zubitxo eta ibilaldiez gozatzeko. Beti bezala, giroa bikaina izan da".

EHko TOPAKETEN AURKEZPENA DEBABARRENEAN

Testua **IRATI ALVAREZ MALAXETXEBARRIA**
Argazkiak **SILBIA HERNANDEZ ARRAZOLA**

Eibarko Gaztetxean elkartuko dira gaur Mendaroko, Debako eta Eibarko gazte asanbladetakok kideak, maiatzaren amaieran Elorrioren egingo diren topaketak aurkezteko. Baina azaldu dutenez, ekimena ez da antolakuntza hutsa: gaur egungo testuinguruaren aurrean “erresistentzia kolektibo bat eraikitzeko” saialkerak da, desalojo, kriminalizazio eta gero eta zailagoa den antolakuntza egoeraren erdian.

Eibarko Gaztetxeko hormek ez dute jarduera politikoaren arrastoa gordetzen soilik. Iragan luzearen eta etorkizun zalantzarriaren arteko tentsioa ere bada: okupazio baten jarraikortasun hauskorra, mehatxu urbanistikoak eta espazio autogestionatu baten defentsa etengabea. Testuinguru horretan kokatzen dira Euskal Herriko gaztetxe eta gazte asanbladen topaketak. Horretaz mintzatu dira Kristiña Fidalgo (Mendaro), Aroa Goena eta Nahia Urkaregi (Deba) eta Irati Izaguirre (Eibar).

“Geroz eta zailagoa da modu independentean antolatzea”

Elkarrizketaren hasieratik ageri da diskurtso nagusia: gazte antolakuntza zaildu egin da. Kristiñak zuzenean laburbiltzen du: “Geroz eta zailagoa da modu independentean antolatzea”.

Haren hitzetan, desalojoak, isunak eta kriminalizazio kanpainak ez dira salbuespena, baizik eta egunero egoera baten parte. Horri gehitzen dio “ofentsiba” kontzeptua: antolakuntza politikoa bera baldintzatzen duen presio instituzional eta egituratua.

Aroak, Debatik, dimentsio hori osatzen du: arazoa ez da espazio fisikoak galtzea soilik. “Gazteontzat aisialdi eta espazio politiko propioak eraikitzeko aukerak murrizten ari dira”, dio, eta horren atzean egitura sozial eta ekonomiko bat ikusten du.

Nahiak, berriz, beste ardatz bat nabarmendu du: Euskal Herri osoko gaztetxe eta gazte asanbladen sa-



KRISTINA: “GEROZ ETA ZAILAGOA DA MODU INDEPENDENTEAN ANTOLATZEN GABILTZAN GAZTE ETA ESPAZIOAK ARRERA ERAMATEA”

retze falta. “Gure artean komunikazio gehiago behar genuela ikusi dugu”, azaldu du. Horregatik ulertzen dute Elorrioko topaketa elkartze hutsa baino gehiago dela: egun bizi dugun ofentsibari aurre egiteko modua da.

Antolakuntza horizontala eta erabaki kolektiboak

Topaketak nola antolatzen ari diren azaltzean, egitura berezi bat ageri da. Kristiñaren arabera, ez dago zuzendaritza edo talde motor zentralik: “Erabaki guztiak asanbladetan hartzen dira”.

Herriz herriko ordezkariak elkartzen dira, eta erabakiak behetik gora eraikitzen dira. Nahiak laburbiltzen du: “Modu oso horizontalean ari gara lanean”.

Aroak, ordea, ñabardura bat gehitu du: horizontalitatea ez da automatikoki eraginkorra. Horregatik, norberaren interesen arabera asanbladen barruan gaika antolatzea beharrezkoa dela diote, prozesuak errazteko.

Lehen saiakera batetik jarraikortasunera

2024ko urrian Debabarrenean egin zituzten lehen topaketak gogoratu dituzte, Mutrikuko asanbladaren parte-hartzearekin. Iratiren hitzetan, “lehen hartumana izan zen”, hau da, elkartzeko lehen saiakera bat, baina orduan “dena pixka bat airean geratu zen”.

Orain, bigarren saiakera honetan, helburua argiago dute: ez da elkartzea soilik, baizik eta saretzea iraunkor bihurtzea. Kristiñak azaltzen duenez, asmoa da “orain dela bi urte lortu ez genuen saretze hori berriro ematea gure artean”, eta horri jarraipena ematea.

Idea ez da kontaktu puntualetan geratzea, baizik

AROA: “AZKEN URTEETAN, DEBABARRENEAN ZEIN EUSKAL HERRI MAILAN SARETZE FALTA BAT IKUSI DUGU”

eta egitura iraunkor bat sortzea. Finean, elkarren arteko kontaktuari eustea, batez ere egoera zailetan elkarri laguntzeko: materialean, hausnarketan edo defentsa politikoan.

Iratiren hitzetan, hori praktikara eramateko logika argia dute: “Horrela, gaztetxe bat arriskuan baldin badago, erantzuna denon artean eman ahal izango dugu”.

Aniztasuna, oinarri politiko gisa

Elkarrizketan behin eta berriz ageri da ideia bera: ez dute uniformetasuna bilatzen. Kristiñaren arabera, “desberdintasunak aberasgarriak dira”, eztabaida eta hausnarketa indartzen dituztelako.

Hala ere, oinarrizko adostasun bat badago: gaztetxeek eta gazte asanbladek funtzio politikoa dutela.



Aroa Goena, Irati Izaguirre, Kristiña Fidalgo, Nahia Urkaregi eta Iker Jauregibarria Eibarko Gaztetxean.

Hortik aurrera, ñabardurak eta desberdintasunak naturaltzat jotzen dituzte.

Oinarri komun horren barruan kokatzen dituzte gaur egungo erronkak: gazteengana iristeko zailtasunak, diskurtso erreakzionarioen gorakada eta espazio autogestionatuen defentsa gero eta zailagoa izatea.

Ofentsiba eta loraldia,aldi berean

Nahiak egungo testuingurua “ofentsiba” gisa definitzen du: “Alde instituzionaletatik edo indar handia dutenen aldetik presioa dago, eta horrek asanbladak eta gaztetxeak gero eta gehiago zailtzen ditu”, azaldu du. Horri gehitzen dio giro sozial eta ideologikoaren gogortzea, bereziki gazteen artean.

Testuingurua negatiboa izan arren, ez dute gazte asanbladen egoera erabat ilun ikusten. Kristiñaren hitzetan, “gaztetxeen loraldi bat ere badago”, eta horren adibidetzat jarri ditu Galdakaoko eta Errotxapeako asanbladen egoera eta jarrera.

Galdakaoren kasuan, gazte asanbladak espazio bat okupatu eta martxan jartzea lortu zuen, borroka eta antolakuntza prozesu baten ondoren. Nahiz eta ondoren desalojoaren mehatxua edo esku-hartze instituzionala etorri, kideek azpimarratzen dute ez dela eten bat egon: “Hau hasiera besterik ez da” moduko jarrera batekin jarraitu dute antolakuntzan.

Errotxapean, berriz, duela gutxi espazio berri bat lortzeko saiakera egin zuten, eta horrek ere agerian utzi du gazte asanbladek ez dutela jarduera eten, baizik eta etengabe ari direla espazio autogestionatuen aldeko aukerak bilatzen eta borroka berriak zabaltzen.

NAHIA: “JENDEA ANIMATU NAHI DUGU ASANBLADETAN PARTE HARTZERA.”

Bi kasu horiek, Kristiñaren arabera, erakusten dute presioaren erdian ere badagoela mugimendu dinamiko bat, eta gaztetxeen “loraldia” ez dela metafora hutsa, baizik eta praktikan ere agertzen den joera bat.

Bi ikuspegi horiek uztartuta, egungo egoera tentsio batean kokatzen dute: alde batetik presioa eta zailtasuna, eta bestetik berraktibazioa eta antolakuntza berrien sorrera.

Eibarko Gaztetxea: hiri-eredu baten gatazka

Iratik azaldu du Eibarko Gaztetxeak ia 16 urte darमतzala Txonta auzoan, ‘Cadena Iris’ izandako eraikin batean. Baina gaur egun, haren etorkizuna ez dago bermatuta.

Udalak onartutako hiri-plan berriak eremu osoaren eraldaketa aurreikusten du: “Fabrikak botatzea aurreikusten da, gaztetxea barne, bertan etxebizitzak egiteko”, azaldu du Iratik. Planaren arabera, gaztetxearen lekuan errepide bat eraiki eta auzo osoa etxebizitza berriekin ordezkatzeko litzateke.

IRATI: “EIBARKO GAZTETXEAK GARRANTZIA HANDIA DU. GUNE ASKEA DELAKO, GAZTEOK GURE ARTEAN GESTIONATZEKO NAHI DUGUN BESTE, IRITZI POLITIKOAK SORTZEKO GURE ARTEAN...”

Testuinguru horretan, Irati ez da soilik bere espazioaz ari soilik: “Ez gara desalojatuko gaituzten bakarrak. Bada beste fabrika bat Eibarren, okupatua eta autogestionatua dagoena: ‘Frediy’. Hori ere desalojatu eta bota egingo dute”, dio. Bere hitzetan, prozesu bera da atzean: hiri-eraldaketa, etxebizitza berrien eraikuntza eta lehendik dauden espazioen desagertpena.

Kritika horren muina etxebizitza-ereduan jartzen du: “Etxe garestiak eraikiko dituzte, eta auzoko jendeak ezin izango ditu ordaindu”. Haren ustez, gaur egungo egoera paradokikoa da, Eibarren ehunka etxe hutsik egon arren, eraikuntza berrien aldeko apustua egiten delako.

Horren aurrean, gaztetxea ez dute okupatutako eraikin gisa ulertzen soilik. Iratiren hitzetan, “gune askea da, gazteok gure artean gestionatzeko, iritzi politikoak sortzeko eta proiektu desberdinak aurrera eramateko espazioa”. Horregatik, haren defentsa ez da eraikin baten aldeko borroka soil bat, baizik eta auzoaren eta gazteen antolaketa gaitasunaren aldekoa.

“Jendeak hori ikustea nahi dugu”, amaitu du Iratik. “Herriko gaztetxeak duen garrantzia ikustaraztea nahi dugu, eta eraisketa gertatzen bada ere, zein garrantzia duen horrelako espazio batek herriarentzat”.

db!

DEBABARRENEAN ZEHAR



AURREKO SAIOAN

Debabarreneko herrialdeetako etxe eta elkarateak ezagutu genituen, eskualdeko aniztasun kulturean egiten duten lana aztertuz.

HURRENGO SAIOAN

Eskualdeko eduki sortzaileak zerrendatu eta gaika sailkatu ditugu, bakoitzaren profilean aurki daitezkeen eduki mota eta interes gausiak identifikatuz.

ALBISTEAK

Ermuko saihebidetaren I. fasea aurrera doa: urte amaieran hasiko dira obrak.

Judash eta Cobra talde eibartarrak Ermuko Vertigo Rock jaialdian ogingo dira larunbatean.



PLANA
b!

Mai 8

ANTZER.	DESOBEDIENTEAK 18/98	20:30	ANTZOKIA (ERMUA)
AURKEZ.	GAZTETXE ETA GAZTE ASANBLADEN TOPAKETEN AURKE-	18:30	GAZTETXEA (EIBAR)
HITZAL.	SKABIDEAN	19:00	DEPOR (EIBAR)
ERAKUS.	"AIREAN" JONE TELLERIA	19:00	OREKA (SORALUZE)
MUSIK.	HECETU WELO	19:30	ONDARGAIN (DEBA)
IRAKUR.	FAMILIAKO LEXIKOA NATALIA GINZBURG	19:00	GAZTETXEA (MUTRIKU)

Mai 9

TAILER.	"LA VOZ DE LA POESÍA" OLERKI TAILERRA	11:00	LIBURUTEGIA (ERMUA)
MUSIK.	VERTIGO ROCK	12:00	HERRIGUNEA etatik (ERMUA)
BERTSO.	BERTSO AFARIA	20:30	DEPOR (EIBAR)
TAILER.	KUMIHIMO PULTSERAK	10:00	IMP (EIBAR)
MUSIK.	KORALITO KOROA	12:30	IMP (EIBAR)
EGITAR.	XLI DÍA DAS LETRAS GALEGAS	EGUN	URKIZU OSOA (EIBAR)
ANTZER.	ESCAPE ROOM	19:00	COLISEO (EIBAR)
IBILALD.	MORKAIKO EGUNA MENDIA + BAZKARIA	06:00	KALEGOEN (ELGOIBAR)
MUSIK.	XARIBARI ETA ZIRKINIK BEZ	22:30	GAZTETXEA (ELGOIBAR)
EGITAR.	ERRALDOIEN TOPAKETAK ERAKUSKETA + KALEJIRA	17:00	KALEGOEN (ELGOIBAR)
IKAST.	SORAFOLK SOKA INSTRUMENTU IKASTAROA	10:00	MUSIKA ESKOLA etatik (SORALUZE)
BOXEO.	BOXEO JAIALDIA	18:00	ARANE (SORALUZE)
MUSIK.	MAIDER CIGARROA	18:00	ISPILU GELA (DEBA)

Mai 10

IBILALD.	MONTES OBARENES	07:30	BUS GELTOKIA (DEBA)
BISITA.	DEBA ZUMAIA ITSASONTZIZ	12:30	ANES ARRINDA (DEBA)
IKUSK.	TXAN FANTASMA TXOTXONGILO	17:30	ISPILU GELA (DEBA)



BEÑAT LASKURAIN

Kaxero

Hizkuntza guztietan, badira hitz kalifikatzaileen kategoria desberdinak. Izan daitezke maitasunekoak, gorrotozkoak, laudoriozkoak... baina guzti-guztien artean, hartzailearentzat mingarrienak gutxiespenezkoak direla esatera ausartuko nintzateke: goitik-beherako begirada bat dakarte berekin, norbere posizio ustez gorenetik beste norbati mespretxuz egindako beheratzea.

Herri honetan, aurrekoan irratian baserritar gazte batek zioen bezala, “Kaxero” berbari ematen zaion esanahiak, gutxiespen hori primeran gorpuzten du. Baserri-munduari historikoki eman zaion tratua erakusgarri da konnotazio hori –Ahotsak proiektuko testigantza batzuk entzutea aski da mihi gaiztoek “casera burra” eta halakoak nola zerabiltzaten ikusteko–, baina gaur egun, baserritik haragoko zentzua ere ematen zaio: erdaraz ongi moldatzen ez denari, edo euskal abestiak, bertsolaritza, euskal dantzak eta abar gustuko dituen orori esaten zaio orain kaxero, kutsu negatiboz.

Kalifikazio hori darabiltenek badute euskal markoan bizi garenok paletagoak garelako uste bat, antza; “iraganeko kontuetan iltzatuta geratu diren nostalgikoak, hiltzera doan mundu-ikuskeraren azken labekadak”. Duela hilabete batzuk tirabiran aritu nintzen gure identitatea itxia, redukzionista, mugatua eta pobrea zela zioan pertsona batekin. Dirudenez, hegemonikoak diren bizi-estiloek irekitasun-filtro guztiak pasatzen dituzte; regetoia bakarrik entzuten dutenei, futbola bizitzaren ardatz gisa dutenei, telecincoo reality guztietako gorabeherak hizketagai dituztenei, edo bizitzari zuku maratoiz maratoi ibilita ateratzen diotenei inork ez die esaten euren

“Regetoia beharrez euskal musika entzunda, eta La Isla de las Tentaciones beharrez Mihiluze ikusita... hara! badirudi nortasun hori itxia, mugatua bihurtzen dela”

identitatea itxia, redukzionista denik (eta ze ondo). Baina regetoia beharrez euskal musika entzunda, eta La Isla de las Tentaciones beharrez Mihiluze ikusita... hara! badirudi nortasun hori itxia, mugatua bihurtzen dela.

Izan ere, euskaldunok Estatu espainiar eta frantsesarekiko lotura behartua dugun honetan, Estatuko

normaltasun-parametroek zedarritzen dute zer den normala eta zerk bihurtzen zaituen erreserba indio baten parte. Euskadin espainieraz edo frantsesez bakarrik bizitzea eta euskal munduarekiko bizitzea guztiz paraleloa edukitzea normala da, neutroa, ez ordea alderantziz; bertako hizkuntza eta kultura propioa ardatz hartuta bizi nahi izatea itxitasunaren zantzu omen da, kaxeroa eta erradikala.

Munduan 7.000 hizkuntza-kultura inguru daude bizirik: hasi masaietatik eta ainuetaraino. Hori da munduko benetako aberastasun kulturala, benetako kultura-aniztasuna, belaualdiz belaualdi garatzen, eraldatzen joan diren mundu-ikuspegien arteko elkarbizitza. Ez baitago iraganeko kolonizazio-prozesuen ondorioz mundu mailako kultura-hegemoniak lortu dituzten bi kulturetatik (hispanoa eta anglosajoa) kanpo dagoen edozer mugatua, pobrea eta itxia dela uste izatea bezain gauza redukzionistagorik. Munduko kultura-aniztasunaren alde, guk Euskal Herri euskalduna dugu emateko.



**UNI
EIBAR
ERMUA**

AURRE- MATRIKULA

 | **MAIATZAK 4tik 22ra**

IKASTETXE PUBLIKO DOAKOA



**IZENA EMAN
EDO DEITU**
📞 943 89 92 11
www.uni.eus

MERKATARITZA **ADMINISTRAZIOA
ETA
KUDEAKETA**

**JARDUERA
FISIKOAK
ETA KIROLAK** **INFORMATIKA
ETA
KOMUNIKAZIOAK**


ELUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
HEZKUNTZA SALA
DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN

Otaola Hiribidea, 29
20600 Eibar, Gipuzkoa
943 89 92 11
idazkaritza@uni.eus
www.uni.eus
@uni.eus  

MGEP

MONDRAGON GOI ESKOLA POLITEKNIKOA
JOSE MARIA ARIZMENDIARRIETA, KOOR. E.

Goi Mailako Heziketa Zikloak

- Sareko Informatika Sistemen Administrazioa
- Fabrikazio Mekanikoko Diseinua
- Fabrikazio Mekanikoko Produzioaren Programazioa
- Mekatronika Industriala
- Automatizazio eta Robotika Industriala
- Energia Berriztagarriak **BERRIA**

Espezializazio ikastaroa

- Industria Mantentzearen Digitalizazioa
- Eragiketa-teknologiaren Inguruneetako Zibersegurtasuna

Oñati gestio heziketa

Goi Mailako Heziketa Zikloak

- Administrazio eta Finantzak
- Marketin eta Publizitatea **BERRIA**

AURREMATRIKULA

**Maiatzaren
4tik 22ra**



MGEP: 664 298 683
OÑATI GESTIO HEZIKETA: 943 71 80 09

Galiziako nortasun kulturala harrotasunez ospatzeko prest

Testua **SILBIA HERNANDEZ ARRAZOLA**

Eibarrek asteburu honetan ospatuko du 41. Galizieraren Letren Eguna (*Día das Letras Galegas*). Horretarako, As Burgas Galiziako Etxeak hiru egunetarako jai-egitaraua prestatu du, Eibarko Udalaren eta Galiziako Xuntaren laguntzarekin. Gaurtik hasita domekara bitartean burutuko diren jarduerak, Urkizuko parkea Galiziako kulturaren eta euskal tradizioaren arteko topagune bilakatuko dute aurten ere.



Egitaraua gaur, maiatzak 8, hasiko da, arratsaldeko 19:00etan, jai-batzordearen tabernaren irekiera ofizialarekin eta haurrei zuzendutako animazioarekin. Ondoren, Os Galaicos eta Eibarko Trikitilarien eskutik egingo den gaitapoteoak kaleak girotuko ditu. Eta, gauean, Ritmo Joven orkestrak musika eta dantzaldia eskainiko ditu, 22:00etatik 00:30era. Ohi-koa denez, gauerdian etenaldi labur bat egingo dute, *queimada* prestatu eta banatzeko.

Zapatuko jardunaldia goizetik hasiko da, haurrentzako giltzen (*chaves*) jaurtiketa mistoarekin. Egunean zehar herri-kirolak eta igel-toka txapelketak izango dira, eta arratsaldean helduentzako giltzen jaurtiketa ere egingo da. Arratsaldeko 18:30ean, Galiziako dantza eta musika erakustaldia egingo da, Os Galaicos eta Eguzki-Fole gaitari taldearen eskutik. Gaueko eskaintza musikalak Solara orkestraren emanaldia izango du ardatz,

berriz ere gauerdian egingo duten *queimada* tradizionalarekin lagunduta.

Domekan, maiatzaren 10ean, kulturarteko topaketak izango du protagonismoa. Eguerdian, Galizia eta Euskal Herriko musika eta dantzak uztartuko dira Kezka dantza taldearen, Eibarko Trikitilarien eta Os Galaicosen emanaldian. Ondoren, lore-eskaintza egingo da Castelaoren monumentuaren aurrean eta, jarraian, jaien antolatzaileek agintariekin hamaiketako edo bazkari arina egingo dute.

Arratsaldean, Odisea elkarteak mahai-jokoen erakustaldia eskainiko du, eta eguna Miren Gisasola DJaren musikarekin biribilduko da. Gauean, 22:00etan itxiko da jai-batzordearen taberna, eta horrekin batera emango zaio amaiera aurtengo edizioari.

Horrela, beste behin, Eibarrek Galiziako kulturarekiko duen lotura estua ikusiko da, musika, dantza eta herri giroa uztartuko dituen jaietan.



Aurtengo jaietan ere Galiziako dantzak eta musika zuzenean gozatzeko aukera ederra izango dugu, As Burgas Galiziako Etxeko Os Galaicos taldearen erakustaldian. Galiziakoarekin batera, euskal kulturak ere bere tokia izaten du jai-egitarauan, urtero. FERNANDO RETOLAZA

42 urte Galiziako kulturari eusten

As Burgas Galiziako Etxea 1984. urtean sortu zen, lagun talde baten eskutik. Ia guztiak galiziarrek ziren, baina sortzaileen artean bazeuden hemengoak ziren beste pare bat lagun. Gaur egun berrehun bat bazkide dauzka, tartean bazkideen seme-alabak diren dozena erdi gazte.

Eibartar gehienontzat ezagunak diren jaiak antolatzeaz gain, urtean zehar ere hainbat jarduera antolatzen ditu Galiziako Etxeak. Urtero lehiaketak egiten dituzte: Gabonetako marrazki lehiaketa, mus txapelketa, mozorro lehiaketa Aratostetan...

Horrez gain, urtean behin irteeraren bat ere egiten dute, inguruko mendietara, edo beste tokiren bat ezagutzera joateko. Iaz, adibidez, Madrilera joan ziren, dantzara, horretarako gonbidapena jaso zuten eta. Izan ere, urtero jaietan Galiziako dantzak eta musika eskaintzen dituen Os Galaicos taldea, Eibarren ez ezik, Ermuan,

Donostian eta beste hainbat tokitan aritzen da, Galiziako dantzak eskaintzen.

Rosalía de Castro idazlearen 'Cantares Gallegos' lana gogoan

Galiziar Letren Eguna Eibarren maiatzeko bigarren asteburuan ospatzen den arren, *Día das Letras Galegas* delakoa maiatzaren 17an ospatzen da, berez. Asmoa galizieraz idatzitako literatura eta kultura omentzea eta sustatzea da. Eguna 1963an sortu zuen Real Academia Galega erakundeak, eta data hori aukeratu zuten 1863ko maiatzaren 17an Rosalía de Castro idazlearen *Cantares Gallegos* lana argitaratu zelako. Liburu hori galizierazko literaturaren berpizkundearen hasieratzat hartzen da.

Horrela, urtero, egun horretan galizierazko idazle edo kultur-eragile bat aukeratzen dute, omentzeko. Eskolak, liburutegiak eta kultur erakundeak jardueraz betetzen dira eta, gainera, Galizian jai-egun ofiziala da.

Ritmo Joven eta Solara orkestrek girotuko dituzte barixaku eta zapatuko dantzaldiak

Galiziako eta Euskal Herriko musika eta dantzak uztartuko dituen erakustaldia eskainiko dute Kezka dantza taldeak, Eibarko Trikitilariak eta Os Galaicos taldeak domekan

“Leku berean egonda ere, bakoitzak argazki oso desberdina ateratzen du”

BAKARNE ELEJALDE ETA VIRGINIA ARAKISTAIN • Klub Deportiboko Argazkilaritza Batzordea



Bakarne Elejalde eta Virginia Arakistain, Eibarko Klub Deportiboko Argazkilaritza Batzordeko kideak, Lanzaroten egindako bidaian oinarritutako erakusketak bateratua aurkeztu dute Argazkilaritza Maiatzean egitasmoaren barruan.

Testua **IRATI ALVAREZ MALAXETXEBARRIA**

Portaleko argazkilaritza gelan elkartu gara Bakarne Elejalde eta Virginia Arakistainekin. Hamarkadak daramatzate Klub Deportiboko Argazkilaritza Batzordean, eta gaur egun ere aktibo jarraitzen dute taldearen jardunean. Argazkilaritza Maiatzean egitasmoaren barruan aurkeztu duten erakusketak Lanzarotera egindako bidaia du oinarri. Paisaia bolkanikoez eta koloreek gidatutako lan sorta da, baina batez ere, bi begiraden arteko elkarrizketa: leku bera, bi ikuspegi.

Nola iritsi zineten argazkilaritzara eta Klub Deportiboko taldera?

BAKARNE: Jose Luis Irigoienekin ikastaro bat egin nuen, eta orduan sortu zen argazkilaritza taldea. Bertan sartu nintzen, eta ordutik hemen nago. Duela 35 urte inguru hasi nintzen.

VIRGINIA: Nik hasiberrientzako ikastaro bat egin nuen Unibertsitate Laboralean, Udalak antolatuta. Hura amaitutakoan, 1993an sartu nintzen Klub Deportiboko taldean. Orduan ezagutu genuen elkar.

BAKARNE: Ni sartu nintzenean Inma Urkiola zegoen, eta ez dut uste beste emakumerik zegoenik. Denak mutilak ziren. Gero Virginia azaldu zen, eta oso pozik hartu genuen.

VIRGINIA: Ni sartu nintzenerako Inma ez zegoen jada, eta gu biok gelditu ginen. Hamalau urtez emakume bakarrik izan gara.

BAKARNE: Emakume bakarra nintzenez, presidente izatea egokitu zitzaidan. 33 urtez jardun dut karguan.

Gero erreleboa eskatu nuen, eta gaur egun Fernando Solana da presidentea.

Gaur egun emakume gehiago al zaudete taldean?

VIRGINIA: Bai, baina ez asko. Gutaz gain, Iraia dabil, eta bi ahizpa ere bai: Estrella eta Silvia. Hala ere, gehienak gizonaezkoak dira oraindik.

Zenbat lagun zarete gaur egun?

VIRGINIA: Aktibo, eta bileretan parte hartzen dugunok, hamar bat lagun izango gara.

BAKARNE: Martitzen guztietan elkartzen gara. Gero bada beste jende bat ere, beste modu batean parte hartzen duena; batzuk urte asko egin eta gero utzitakoak dira.

Zaila da halako talde batean jendeari eustea?

VIRGINIA: Bai, azken batean dena da zaletasun hutsez egina. Lana dagoenean, gehiago kostatzen da jendea erakartzea.

BAKARNE: Argazkilaritza Maiatzean antolatzeak lan handia eskatzen du.

VIRGINIA: 25 edo 26 urte daramatzagu antolatzen. Ez da maiatzera mugatzen; urte osoan prestatzen ditugu erakusketak, tailerrak eta bestelako jarduerak.

BAKARNE: Tailerretara argazki munduan oso izen handiko jendea etorri izan da.

VIRGINIA: Bai, penintsula osoan erreferente diren argazkilariak.

BAKARNE: Eta oso aberasgarria izan da haiek ezagutzea. Gainera, pertsona xume eta jatorrak izan dira.

Zuen artean sortu den harremana ere garrantzitsua izango da.



Bakarne Elejalde eta Virginia Arakistain, Eibarko Klub Deportiboko Argazkilaritza Batzordeko kideak. IRATIALVAREZ

BAKARNE: Noski. Ikasteko tokia da, baina, aldi be-
rean, lagun kuadrilla ere bihurtu gara

VIRGINIA: Beti gaude prest elkarri irakasteko eta
ikasteko. Bakoitzak bere erara lan egiten badu ere,
denok dugu gure tokia.

**Argazkilaritza Maiatzean barruan erakusketa bate-
ratua egingo duzue Portaleko tabernan. Nola sortu
duzue erakusketa?**

VIRGINIA: : Urte askoan emakume bakarrak izan
gara, eta harreman estua egin dugu. Horregatik, duela
15 urte inguru elkarrekin bidaiatzen hasi ginen.

BAKARNE: Argazkiak egiteko leku aproposak iru-
ditzen zitzaizkigun, koloreengatik eta paisaiagatik.

VIRGINIA: Baina ez gara argazkiak ateratzera baka-
rrik joaten; oporrez gozatzeraz ere bai.

BAKARNE: Veneziara bost aldiz joan gara segidan.
Urtero auzo desberdin bat ezagutu dugu. Gero Italian
barrena ere ibili gara, baita penintsulako hainbat hi-
ritan eta Kanarietan ere.

VIRGINIA: S Eta joaten garen tokietan erakusketarik
edo ikusteko moduko zerbaite baldin badago, aprobe-
txatu egiten dugu.

Nola egiten duzue lan bidaiari horietan?

VIRGINIA: Ekipamendu guztiarekin joaten gara, pisu
handiarekin. Nekatuta bukatzen dugu, baina gustu-

ra. Goizetik irteten gara, eta gehien gustatzen zaidana
hori da: kalera atera eta argazkiak egitea.

BAKARNE: Hor esan beharra dago Virginia izan zela
Indalecio Ojanguren saria jaso zuen lehen emakumea.

VIRGINIA: Bai, 2010ean izan zen.

Lanzaroteko bidaiari izan da erakusketaren abiapuntua.

VIRGINIA: Duela bi urte joan ginen, urrian, astebe-
tez. **BAKARNE:** Aurten erakusketan jartzeko aukera
eskaini digute, eta hango argazkiak aukeratu ditugu.

VIRGINIA: Koloretako argazkiak dira, nahiz eta as-
kotan zuri-beltzean aritzen garen.

Estilo desberdinak dituzue?

VIRGINIA: Bai, nahiko desberdinak.

BAKARNE: Erabat.

VIRGINIA: Leku berean egonda ere, bakoitzak argazki
oso desberdina ateratzen du.

Materialak ere baldintzatzen al du emaitza?

BAKARNE: Bai. Virginiak ekipamendu handiagoa
darama; ni makina txikiago batera pasatu naiz. Bai-
na biek eramaten ditugu objektibo batzuk, egoeraren
arabera bata edo bestea erabiltzeko.

Zer aurkituko du ikusleak erakusketan?

VIRGINIA: Lanzarote oso desberdina da gure herria-
rekin alderatuta.

BAKARNE: Bolkanak, hondartzak... bakoitzak bost



Lanzaroten eginiko argazkiak. Goian, Virginia Arakistainen argazkia. Behean, Bakarne Elejalderena.

“Edozein lekutan aurki daiteke zerbait interesgarria”

argazki aurkeztu ditu. Bidaietan tripodea eramaten dugu beti, eta egunsentia zein ilunabarra harrapatzen saiatzen gara.

VIRGINIA: Batzuetan arratsalde oso bat alferrik joan daiteke, baina hurrengo egunean itzuli eta berriro saiatzen gara.

BAKARNE: Arkitektura eta xehetasunak ere asko gustatzen zaizkigu.

VIRGINIA: Baina oraingoan ia dena natura da.

Zenbat argazki egiten dituzue halako bidaietan?

VIRGINIA: Erakusketan bost edo hamar inguru jartzen ditugu, baina benetan askoz gehiago ateratzen ditugu.

BAKARNE: Asko geratzen dira gordeta, “oroitzapenen kutxan”, esan liteke.

Hurrengo bidaiari begira al zaudete?

BAKARNE: Normalean urrian egiten dugu bidaiia. Oraindik ez dakigu nora, baina Eibarren ez gara geldituko.

VIRGINIA: Edozein lekutan aurki daiteke zerbait interesgarria.

Eta aukeran, nora joango zinatekete?

VIRGINIA: Arkitektura gustuko dudanez, New Yorkera itzuliko nintzateke.


BAKARNE: Argazkiak egiteko leku aparta da: arkitektura, jendea, museoak... denetarik du.

Zer mezu helarazi nahi diezue herritarrei?

BAKARNE: Erakusketak ikustera etortzeko. Oso politak dira.

VIRGINIA: Doakoak dira, eta tailerretan parte hartzerare ere animatuko nituzke. Beti ikasten da zerbait.

BAKARNE: Eta nahi duenak, Klub Deportiboko taldera etor dadila. Martitzenetan elkartzen gara, eta beti izango du norbait laguntzeko prest.



- Maiatzak 12, asteartea
- SD Eibar-eko prentsa aretoan

EUSKARAREN SOZIALIZAZIOA ETA TRANSMISIOA

MINTEGIA

IZEN-EMATEA ZABALIK



- 08:45** Materiala jaso.
08:55 Ongietorria eta agurra.
09:15 **"Norantz doa euskara?"**.
Juanjo Allur eta Unai Oiartzun (SIADECO); eta Miren Segurola (UEMA).
10:05 **"Hizkuntza eskubideak Euskal Herrian, oraina eta etorkizuna"**.
Agurne Gaubeka (Behatokia).
10:55 **"Bilbon euskaraz hazi. Haur txikiak dituzten gurasoen hizkuntza-bizipenak"**.
Olatz Altuna (Soziolinguistiko Klusterreko ikerlaria) eta
Jaime Altuna (EHUko irakasle eta ikerlaria).
11:45 ATSEDENALDIA (ARGAZKIA ETA GOSARIA).
12:35 **MAHAINGURUA: Euskarazko eduki sortzaileak**.
Ana Goitia (kazetaria eta eduki sortzailea) eta Alex Etxegibel (eduki sortzailea).
Moderatzailea: Irati Alvarez (...eta kitto!).
13:25 Agurra.

eta kitto!
euskara elkarte



zarelako^opara

Zure pausoak indartzen
du euskararen bidea.
Batu zaitetz eta egin dezagun Eibar
euskaldunagoa.

EGIN ZAITEZ BAZKIDE

BAZKIDETZA KUOTAK (URTEKO)

- Umeak (16 urtetik behera): urtean 5€
- Ikasle, langabetu eta jubilatua: urtean 20€
- Langileak: urtean 50€

*Errenta aitortuenean %30 itzuliko zaizu

Info+: 943200918 / elkartea@etakitto.eus

eta kitto!
euskara elkarte

“Gauzak bihar ondo egongo direla pentsatu nahi dut, baina ebidentziak ez du hori esaten”

ANDRES SAN MILLAN • Artista



‘Gorputzarentzako eta buruarentzako erretaula’ sortu du New Yorken (AEB) bizi den Andres San Millan artista eibartarrak. 2004ko tsunamiaren ondorioz sortu zitzaion ideia eta, 22 urte geroago, ibai ertzetan bildutako egur zatiek gorputzu du pieza erraldoi batean (alboko irudian ikusi dezakezue nolakoa den bere tamaina). Gaur, maiatzak 8, egingo du obraren aurkezpena New Yorkeko arte-galeria batean.

Testua **EKHI BELAR ERRASTI**

Orain dela ia bi urte, 2024ko azaroan, Arrate Kultur Elkartean egin zuen erakusketa aprobetxatu genuen berarekin aurrez aurreko elkarrizketa egiteko, baina oraingoan pantailaren beste aldetik erantzuten digu, New Yorkeko goiz atseginean. Beti bezain umoretsu hartu du gure deia, pozik euskaraz jardungo duela. “Azken hilabeteotan Mari Carmen Gorosabel lagunarekin astero elkartu naiz bideo-dei bitartez euskara praktikatzeko. Ez dakit gogoratzen duzun, baina aurreko elkarrizketan ez nintzen gai euskaraz egiteko”, diosku harro.


Euskara praktikatzeaz gain, beste zerbait eduki duzu esku artean urte eta erdi honetan: erretaula.

Ba gauza biak oso lotuta daude. Erabiltzen dudan materiala egurra da, uretan flotatzen egoten diren egur zatiak. Euskaraz badago berbarik hori adierazteko? Ingelesezt driftwood esaten zaio. Egur zati horiek uretan alde batetik bestera dabilta, norabide jakinik gabe, hiltzen ari dira, eta bizi berria ematen diet. Orduan, zein zen arazoa edo arrazoi nagusia nik euskaraz ez egiteko? Gerra, Franco madarikatua. Berak pentsatu zuen berarentzat ona izango zela gure

hizkuntza debekatzea, hizkuntzan dugulako norberrekotasuna. Eta zer da norberrekotasuna? Sustraiak. Zuhaitza ahaltsua izango da, sustraiak indartsuak baditu. Gauza bera gertatzen da pertsonekin: sustrairik gabe, jendea hil egingo da. Norabiderik gabe dagoenari nahi duzuna egin ahal diozu, ez duelako sustrairik. Gerrek hori egiten digute.

Hori zen abiapuntua, baina argi zeneukan zer sortu nahi zenuen?

2004ko tsunamiaren ondorioz, 220.000 lagun inguru hil ziren 14 ordutan. Askok! “Zertarako hainbeste heriotza? Zertarako gaude Lurrean?”, galdetzen nion neure buruari. Lurra toki zoragarria izan daiteke, baina ‘pin, pan, pun’ elkarri hiltzen ari gara. Zergatik? Zertarako? Hori da erretaulak erantzuten duen galdera nagusia. Elizara joanez gero, erretaula handi bat ikusiko duzu, San Andresen adibidez (asko maite dut hangorretaula), baina zertarako daude? Erretaulak aldarearen atzean egoten dira eta zenbait gauza irudikatzen dituzte. Elizan, bildotsa (edo Jesus) aldarean hiltzen da eta atzean santuak, Bibliako pasarteak eta abarrak ditugu. Nire erretaulak aldareekin du lotura. Izan ere, gutxi gorabehera, gauza berdina dira: aldarean gertatzen dena eta atzean dagoena ia-ia berdina



Ibai ertzeetan batutako egur zatiekin egin du erretaula New Yorken (AEB) bizi den Andres San Millan eibartarrak.

izaten da. Nire erretaulan jende pila bat dago eta ez dira santuak, ez Jesus ez Maria, zu eta ni gara, jende arrunta, hiltzen duten jende hori. Egun hauetan gertatzen dena ikusten baduzu, adibidez, Iranen, non 160 neska hil dituzten eskola batean, ez dakit zer esan horren aurrean. Gu gara hiltzen ari diren jendea, eta zertarako? Ez dago arrazoi onik. Lagun batek galde-tu zidan ea zergatik den marroia erretaula. Banekien marroia izan behar zuela eta ez nekien zergatik, baina orain bai: odolarengatik. Odola, lehortzen denean, marroixka delako. Erretaula hau esnatzeko eta gauza onei begietara begiratzeko oihua da.

Zer irudikatzen du erretaulak?

Gizon eta emakume erraldoi bana agertzen dira, baina besorik gabe eta bost kutxatan sartuta. Ezin dira mugitu eta ezin dute ezer egin, eta hori gara gu hain zuzen ere. Egoera hau aspalditik dator eta guk ezin dugu ezer egin. Orduan, zergatik sinistu dut gauzak onak izan daitezkeela? Ezin da, ezin da! Gauzak bihar ondo egongo direla pentsatu nahi dut, baina ebidentziak ez du hori esaten. Are gehiago, egoera okerre-ra doa. Bestalde, dualismoan bizi garen artean (bai

“Banekien marroia izan behar zuela eta ez nekien zergatik, baina orain bai: odolarengatik. Lehortzen denean, marroixka delako”

eta ez, ona eta txarra, beltza eta txuria), ezin dugu ezer egin, eta hori esaten du erretaulak. Gizonaren eta emakumearen figuren artean gu agertzen gara, baina txiki, tsunamiak sortutako zoramen horretan, Pablo Picassoren ‘Gernika’ koadroan bonba artean daudenak bezala.

Eibarren erakutsi zenituen lanak ibai ertzetan jasotako egurrekin eginak zeuden. Horrela izan da oraingoan ere?

Bai, gauza bera egin dut. Hori bai, oso pieza handiak erabili ditut, 10 metro ingurukoak.

Prozesu horretan guztian zein izan da gauzarik zailena?

Lagundu obra
finantzatzen



Oso prozesu ona izan da. Adibidez, orain euskaraz hitz egiten ari naizelako (barreak). Bestalde, ni ez naiz ingeniaria eta ez dut inoiz eskultura klaserik jaso, eta neure buruari askotan galdetu diot, “Andres, zergatik nahi duzu horrelako zerbait egin? Ez dakizu-eta nola egin!”.

Eta zergatik egin duzu ba?

Erantzuna sinplea da: “Eta zergatik ez? Egin dezakezu, esango dizut nola”, esaten dit barreneko ahotsak. Azkenean, bidea aurkitzen dut. Askotan gauerdian altxatzen naiz gauzak nola egin pentsatzen. Hasieran ordu horietan altxatzen nintzenez, beldurra sentitzen nuen, baina poliki-poliki ulertzen hasi nintzen ordu horiek oso onak direla niretzat, ordu horietan argia eta erantzuna etortzen zaizkidala, eta gauza hauek nola egin ahal izateko erantzunak jasotzen ditudala. Harrezkero, niretzat ondo dago goizeko 3etan altxatzea gauza hauetarako.

Beraz, obra honek loa kendu dizu, baina gustora sentitu zara horrela?

Oso gustora, gauza onak etorri zaizkidalako.

Zein asmorekin sortu duzu erretaula? Hau da, erakusketa bat egiteko? Eliza batean jartzeko?

Hasieran, lan honetarako tokia aurkitu nuen. Orain dela bi urte ez nekien horrelako gauza bat egingo nuenik, baina emakume bat etorri zitzaidan: “Zu artista zara eta nik arte-galeria berri bat ireki behar dut. Ikustea nahiko zenuke?”. Baietz erantzun nion eta berehala joan nintzen. Horrela, bertako lehen artista bihurtu naiz. Nire bizitzan zehar gauza handi asko egin izan ditut, baina inoiz ez hain handia. Lokala ikusi nuenean, nire ahotsek zera esan zidaten: “Andres, aukera hartu eta edozer gauza egin”. Kasu egin eta segituan marrazkiak edo zirriborroak egin nituen emakumeari erakusteko.

Beraz, lokal horretan egongo da ikusgai zure lana, ezta?

Bai, hori da. Obra oraindik ez dago amaituta (elkarrizketa apirilaren 20an egin genuen), baina maiaztaren 8an aurkeztuko dugu.



“Horrelako gehiago egitea gustatuko litzaidake. Beraz, Eibarren horretarako tokirik balego, deitu mesedez”

Inguru hartan dagoen norbaitek elkarrizketa irakurriko balu, nola deitzen da galeria eta non dago kokatuta?

Bank Art Galleryn (94 Broadway, Newburgh, NY) egongo da ikusgai. Beraz, norbaitek ikusi nahi izango balu, bertatik pasa daiteke edo, bestela, nirekin harremanetan jarri. Ni oso pozik nago nahi duenari erakusteko!

Zaila izango litzateke erretaula Eibarrera ekartzea?

Bai, oso zaila da, baina horrelako gehiago egitea gustatuko litzaidake. Beraz, Eibarren horretarako tokirik balego, deitu mesedez.



Urki Alkidebak 9. postuari eusten dio sailkapenean

E.B. Neurketa parekatua eskaini zuten asteburuan CD Urki Alkidebak eta CD Elgoibarrek, baina markagailua bigarrenen aldera erori zen azkenean, 1-4, eta alboko herrira joan ziren hiru puntuak.

Lehen zatian tentsioa izan zen nagusi, bi taldeak sendo aritu baitziren defentsan eta aukerak urriak izan zirelako. Bigarren zatian, ostera, Elgoibarrek pausoa aurrera eman zuen eta eraginkortasun handiagoa erakutsi zuen erasoan, partidua bere alde jartzeko.

Eibartarrak erreakzionatzen saiatu ziren azken minutuetan, baina ez zuten saria aurkitu. Aukerak izan zituzten markagailua berdintzeko, baina ate aurrean fin ibiltzea falta izan zitzaien.

Porrotak ez du eragin handirik izan Urkik sailkapenean duen postuan, bederatzigarren izaten jarraitzen duelako, 44 punturekin, Beti Gaztek eta Mondragonek baino lau puntu gehiagorekin.

Liga amaitezko hiru jardunaldiaren faltan, puntu gehiago lortzeko helburuarekin egiten dio aurre Urkik azken txanpari, mailari eusteko helburua aspaldi lortu badu ere.

Eibar Rugby Taldeak Zilarrezko Kopako finala irabazi du BUC-en aurka

E.B. Eibar Rugby Taldeak 2026ko Erreginaren Zilarrezko Kopa irabazi zuen barixakuan, maiatzak 1, Madrilgo El Cantizal zelaian jokatu-tako finalean, Barcelona Universitari Club (BUC) taldeari 35-10 irabazita.

Hasi eta berehala jarri ziren eibartarrak markagailuan aurretik, 1. minutuan Janire Altunak gauzatu-tako zigor-kolpe batekin. Hala ere, kataluniarrak ez ziren kikildu eta 28. minutuan parekotasuna berreskuratu zuten beste zigor-kolpe batekin.

Lehen zatia orekatua izan zen,

baina atsedendialdiaren atarian, 41. minutuan, Eibarrek entsegu bat lortu zuen, transformatu gabea, atsedendira 8-3ko emaitzarekin joateko.

Bigarren zatian, ordea, armaginen indarra nagusitu zen. Eibarrek erritmoa bizitu eta hamabi minutuko tartean entsegu bat eta zigor-kolpe berri bat erdietsi zituen, eta Janire Altunaren beste zigor-kolpe batekin 21-3koa ezarri zuen. BUC markagailua estutzen saiatu zen, baina Eibarrek kontrolari eutsi zion eta partida 35-10 amaitu zen.

Jokin Merino boxeolariak Anderson Stevenen aurka borrokatuko du bihar

E.B. Soraboxek boxeo jaialdia antolatu du biharko, maiatzak 9, Soraluzeko kiroldegian. Bertan, Euskadiko Txapelketako kanporaketak jokatu dira zazpi borrokekina eta, bestetik, Soraboxeko kideek beste zazpi borroka egingo dituzte, tartean Jokin Merino eibartarraren eta Anderson Stevenen (Club Global K.O.) artekoa.

Ikuskizuna 18:00etan hasiko da eta atea 17:30ean irekiko dituzte. Aurretik, 16:00etan, pisaketa egingo da.

Sarrerak aldeztu aurretik lortzeko, 639 27 56 75 telefonora deitu daiteke eta 15 euro ordaindu beharko dira; eta jaialdiaren egunean leihaltan erosiz gero, 20 euro ordaindu beharko dira.





Urbat Urkotroniken ate irekiak maiatzean zehar

E.B. Waterpoloa ezagutzeko eta probatzeko aukera emango die maiatzean zehar Urbat IKE waterpolo taldeak ateak zabalduko dizkie LH-ko 3. eta 6. maila arteko umeei. Saiok hileko astearte eta ostegunetan egingo dira, 17:00etan, Orbea kiroldegian.

Izena emateko edo informazio gehiago jasotzeko urbatateirekiak@gmail.com helbidera idatzi ahal izango da.



Urbat Urkotroniken gizonezkoek 2. Nazional Mailari eustea lortu dute

E.B. Gizonezkoen 2. Nazionalen jokatzeko duen Urbat Urkotroniketik Nautica Portugaleteren aurka jokatu zuen asteburuan, berebiziko garaipena lortuz (12-7) eta mailari eutsiz.

Taldeak hasieratik kontrolatu zuen neurketa, defentsan seriotasuna eta erasoan eraginkortasuna erakutsiz, hiru puntu garrantzitsu eskuratzeko eta bolada onari eusteko. "Orain dela hiru aste taldeak mailari eutsiko ziola gutxi uste bazuten

ere, azkenengo asteko emaitzek posible egin dute egoerari buelta ematea eta mailari eustea", diote taldeak.

Euskal Herriko 1. Mailan, Urbat B taldeak jardunaldi bikoitza jokatu zuen. Lehen partiduan berdindu egin zuen Iruñea 9802ren aurka (12-12, 4-2 irabaziz penaltietan). Beste neurketan, eibartarrek garaipen landua lortu zuten Leioa WT taldearen aurka (19-17), erritmo handiko eta erasokorra izan zen partiduan.



Asteburu bikaina izan da Ipurua gimnasia erritmikoko taldeentzat

E.B. Zapatuan, Ansoaineko torneoan, oholtza gaineko lana sendoa izan zen, nahiz eta podiuma gertu gertu geratu zen kasu batzuetan. Infantil eta kadete mailako taldeek laugarren postua eskuratu zuten, azken xehetasunetan ihes eginda dominak. Jubenilen taldeak, ordea, pausoa harago eman eta bigarren postu bikaina lortu zuen. Banakakoan, Nahia Arguizek eta Arrate Bascaranek zortzigarren amaitu zuten senior mailan.

Domekan, berriz, Eibarrek berak hartu zuen lekukoa, Gipuzkoako Txapelketarekin. Infantilen taldeak urrea eskuratu zuen, eta kadeteen eta jubenilen taldeek zilarrezkoa.

Banakako probetan, Nora Eizaguirrek lehen postua eskuratu zuen kadete mailan, eta seniorretan garaipen bikoitza lortu zuten etxekoek, Nahia Arguiz nagusi izan baitzen senior master kategorian eta Arrate Bascaranek garaipena lortu baitzuen senior mailan.



Vicent Zaragoza sprintean nagusitu zen 55. Valenciaga Oroitzarrean

E.B. Emozio handiko txirrindularitza lasterketa jokatu zen domekan, Eibarren, Valenciaga Oroitzarrearen 55. edizioan. Amateur mailako txirrindulari indartsuenak aritu ziren bertan eta maila handiko lasterketa eskaini zuten. Garaipena sprintean erabaki zen Toribio Etxebarriako helmugan. Bertan, Natural Greatness taldeko Vicent Zaragoza izan zen azkarrena, Daniel Ceba (Caja Rural – Alea) eta Martin Solhaug Hansenen (Cortizo) aurretik.

Eibarren hasi eta amaitu zen 159 kilometroko lasterketa, eta ohiko moduan, gogortasun handiko lasterketa izan zen, mendate ugariekin. Besteak beste, Ixua eta San Miguel mendateen igoerak erabakigarriak izan ziren, tropela zatituz eta lasterketa hautsiz, baina multzo bat iritsi zen azken zuzengunera, garaipena jokoan zela.

Foto-finisha erabakigarri

Hasieratik saiakera ugari egon baziren ere, erritmo altuak ez zuen ihesaldiak sendotzea ahalbidetu. Hala ere, une batean, lasterketakua hartu zuen Elgetako igoeran eta hainbat txirrindularik tartea irekitzea lortu zuten. Ixuan, Pedri Crausek bakar-ka egin zuen aurrera, baina eroriko batek aukerak zapuztu zizkion helmugara iritsi aurretik.

Azken kilometroetan, lasterketa guztiz hautsi zen eta talde txiki batek jokatu zuen garaipena. Azkenean, bost txirrindulariko multzoa (podiumera igo ziren horiez gain, Aimar Tadeo eta Jesse Maris) iritsi zen helmugara, eta bertan Daniel Ceba eta Martin Solhaug Hansen bezalako izen indartsuak izan arren, Vicent Zaragoza La Vila Joiosako txirrindularia izan zen azkarrena azken esprintean, foto-finisak erakutsi zuen bezala.

ASTEBURUKO AGENDA

FUTBOLA

Emakumezkoen 1. Maila

EIBAR - Alhama (bihar, 16:00)

Gizonezkoen 2. Maila

Mirandes - EIBAR (etzi, 18:30)

Gizonezkoen 3. Maila RFEF

EIBAR C - Pasaia (bihar, 17:00)

Jubenilen Liga Nazionala (gi)

EIBAR B - Tolosa (etzi, 11:30)

Jubenilen Euskal Liga (gi)

Romo - URKI (bihar, 13:00)

FUTBOL-ZALETUA

Kopa Txapelketa

• Bergara Pn. - Garajes Garcia (bihar, 09:00)

• Limpiezas Rueda - Malape (bihar, 10:30)

• Xania - Kalaka Bs. As. (etzi, 09:00)

WATERPOLOA

EH Kopa (gi)

DN Portugaite - URBAT (etzi, 11:30)

Euskal Liga (em)

Askartza B - URBAT (etzi, 13:00)

HIRU-TXIRLO

Gipuzkoako Txapelketa

San Migeleko bolatokia (bihar, 17:00)

Kirol albiste gehiago gure webgunean





Deporrekoak 4. izan dira Bigarren Kategoriako Euskadiko Kluben Txapelketan

E.B. Bigarren Kategoriako Euskadiko Kluben Txapelketa jokatu zen domekan, maiatzak 3, Getxoko Fadura atletismo pistan. Bertan aritu ziren Eibarko Klub Deportiboko atletismo taldeko gizonetakoak eta 4. postuan amaitu zuten, Santurtzi, Tolosa eta Galdakaoren atzetik.

Goiza oso ondo hasi zuten eibartarrek, hasierako proben ondoren lehen postuan kokatu ziren, baina goiz erdian gainerako taldeek mar-txa bat gehiago jarri zuten eta sailkapenean nabarmendu egin ziren.

Zazpi domina

Bakarkako probetan, Deporreko atletek zazpi domina eskuratu zituzten, urrezko hiru eta brontzezko lau: Markel Gutierrezek (5.000 m martxa), Alex Cuestak (luzera jauzia) eta Ugaitz Gartzia (3.000 m oztupoak) lortu zituzten urrezkoak; eta Eneko Blajakisek (mailu jaurtiketa), Salaheddin Chajranek (400 m hesiak), Carlitou Mendyk (pertika jauzia) eta Julen Teranek (jauzi hirukoitza) brontzezkoak.

Gainera lan bikaina egin dute taldeko beste ordezkari guztiek: Asier Andreu (altuera jauzia), Oier Acha (100m eta erreleboa), Dennis Marquez (200 m eta erreleboa), Marcos Untzetabarrenetxea (800 m), Roberto Gartzia (1.500 m), Anwar El Hassouni (3.000 m), Kepa Marquez (110 m hesiak), Eneko Fernandez (Diskoa, 2kg) eta Amets Marko (xabalinar eta erreleboan).

Atletismo Eskolakoak Ordizian

Deporreko Atletismo Eskolako gazteak, ostera, Ordizian jokatu zen Eskolarteko Txapelketaren 3. jardunaldian izan ziren domekan, honako parte-hartzearekin: Lucia Arkotxa (vortex jaurtiketa eta 60 m), Markel Urain: (vortex eta 1.000 m), Danel Zubia (60 m eta luzera jauzia hirukoitza), Luke Litago (vortex jaurtiketa), Jule Azurmendi (luzera jauzia hirukoitza), Malen Etxeberria (80 m eta pisu jaurtiketa), Izadi Flores (pisu jaurtiketa) eta Lucia Calvo (1.000 m eta 80 m).

Eskubaloia Eguna ospatuko da datorren astean

E.B. Eibar Eskubaloia klubeko taldeek denboraldia agurtuko dute laster. Sasoia ona izan dela ospatzeko, Ipurua kiroldegia laga eta kalera irtengo dira datorren astean, baina ez hori bakarrik, musika ere jarriko dute-eta. Horrela, maiatzaren 15ean, barixakua, DJ Agusek musika pintxatuko du Untzagan, 20:30etik aurrera, eta hurrengo egunean, 16an, 20:00etatik aurrera, bi taldek joko dute plazan: Urkarik eta Slidek.



Ipuruan galdu ondoren, garaipen bila Mirandara

E.B. 2. Mailako gizonetako taldearen bolada bikaina moztu zuen Malagak zapatuan, baina eibartarrek baikor begiratzen diote etorkizunari eta domekan, maiatzak 10, play-off postuetara iristeko aukerak izango dituzte Mirandesi irabaziz gero, Malaga bi puntura baitago.

Partida 18:30ean hasiko da, Anduva zelaian eta, Miranda urruti ez dagoenez, jokalariek zaletu armaginen beroa eta animoak jasoko dituzte.

Eskola Kirolaren aro berriak oso erantzun ona izan du lehen ikasturtean

Eraberrituta etorri da ikasturte honetan Eibarko Eskola Kirola. Gurasoen eskaerei erantzunez eta zenbait urtetako lanaren ondorioz, beste modu batean planteatu dute aurtengo jarduna Athlon kooperatibarekin elkarlanean, eta denboraldia amaitzeaz den honetan, apustua ondo irten zaiela aitortu digute. Beraz, datorren ikasturtera begira lanean jarri dira dagoeneko, apustua berrituz.

Testua **EKHI BELAR ERRASTI**



Maiatzeko jardueretako informazio gehiago



Oihane Sarasketa eta Xubane Sagastagoia izan dira Eibarko Eskola Kirolaren koordinatzaileak 2025/2026 ikasturtean. Gauzak probatzeko urtea izan da aurtengoa eta “oso ondo” joan dela esan digute. Ikasturtean zehar ikusi dutenarekin eta egun hauetan jaso duten balorazioekin egin dute baieztapen hori, epe luzera proiektua garatzeko oinarri sendoak dituela ikusaraziz.

Guztira, 300 ume inguruk eman dute izena aurrean, iazkoan baino gutxiago, baina parte-hartzea handiagoa izan da. “Aurreko ikasturtekin alderatuz, izen-emateak gutxitu egin dira. Izan ere, lehen derrigorrezkoa zen Eskola Kirolean apuntatzea gero beste kirol batean izena emateko, eta derrigortasun hori kendu egin dutenez, bagenekien izen-emateak jaitsiko zirela. Dena dela, parte-hartzea, ehunekotan, handiagoa izan da beste urteekin

alderatuz”, azaldu digu Sarasketak. “Asteburuetako topaketetan kopurua % 50 ingurura jaitsi da batzuetan, baina astean zehar % 80 eta antzeko kopuruetan ibili gara”.

Ikasturtean zehar 15 kirol ezberdin egin dituzte umeek (waterpolo, skate, arku-tiroa, igeriketa artistikoa, futbola, eskubaloia, saskibaloia, pilota...). Astean zehar bi saio eta asteburuetan topaketak eginez (18 topaketa guztira). “Topaketetan lehen zegoen kutsu lehiakorra kendu dugu eta txokoak jarri ditugu, taldeka umeak txoko guztietatik pasa daitezten. Gero, amaieran, partidatxoak egin ditugu, lehiakortasunari garrantzia eman gabe, taldeak aldatuz eta denek denen aurka jokatzeko saiatuz. Kirolaren araberakoa izan da hori, taldekako kirolean egin dugu hori batez ere, baina orokorrean planteamendua txokoetan banatzea izan da”, azaldu digute.

Berritasunen artean, aurrean



Hainbat kirol-modalitate praktikatzeko aukera izan dute herriko umeek. EIBARKO ESKOLA KIROLA

‘orientinga’ egin dute. “Mendian ibilbidea egin dugu, talde txikietan, eta pisten eta galderen bitartez bidea aurkitu behar izan dute”, dioskue. “Oso ondo egon zen. Egia da prestakuntza duela atzetik, baina umeek hain ondo pasatzen dutela ikusita, merezi du”.

Aste barruko saioei dagokienez, zera diote: “Astero bi saio egin dituzte, orokorrean eskolan bertan, eta eskolan posible ez bada, gertuko espazio egoki batean. Asteburuan tokatzen den kirola lantzen dugu bertan. 45-50 minutuko saioak izaten dira eta batzuetan nahiko motz geratzen da kirol horretan sakontzeko, baina Eskola Kirolaren helburua ez da hori. Gure helburua espezializaziotik haratago joatea da eta umeek ahalik eta kirol gehien probatzea. Gainera, saiatsen gara probatzen duten kirol horiek gero, 6. mailatik aurrera, Eibarren garatzeko aukera izatea. Hau da, kirol

Umeak kiroltako lehiakortasunetik haratago heztea da Eskola Kirolaren helburuetako bat

horiek egiten dituzten klubak edo elkarteak egotea, hortan jarduteko”.

Hurrengo ikasturtea

Koordinatzaileek ikasturtean zehar ikusi dutenaz haratago, gurasoei eta umei galdetegia pasa diete denboraldi amaierako balorazioa egiteko eta aurrera begira zer egin dezaketeten hobeto jakiteko. “Oraindik erantzun batzuk jaso behar ditugu, baina jaso dugunaren arabera umeak gustora egon dira”, diosku Sarasketak.

Galdetegiak beste ondorio batzuk ere laga ditu: “Hau bakoitzaren gustuaren arabera da, baina batzuek kirola jolasera gehiago bideratzea nahi dute; beste batzuek lehiaketa gehiago egitea; batzuek are kirol gehiago sartzeari nahi dute; beste batzuek kirol kopurua gutxitzea eta horietan gehiago sakontzea...”, laburbiltzen digute.

Koordinatzaileek zaila ikusten dute iritzi guztiak asetzeko modua aurkitzea, baina eurek argi dute zer den Eskola Kirolarekin lortu nahi dutena eta “modu positiboan” hartu dituzte gurasoen eta umeen iritziak. “Asko laguntzen digu datorren ikasturtera begira”, dioskue.

Eskola Kirolaren helburuak dira kirola lagun artean egitea, euskaraz, jende berria ezagutzea, koordinazioa eta motrizitatea lantzea, eta batez ere, kirola egiten ondo pasatzea. “Ez ditugu eskubaloiko, sasbaloiko edo futboleko munduko

Datorren ikasturtean LH1-eko eta LH2-koek ere hartu ahal izango dute parte, eta Eskola Kirol Egokitua eskainiko dute lehen aldiz



txapeldunak bilatzen. Horretarako beste espazio batzuk daude”, diosku Sarasketak. Hortik abiatuta eta aurtten ikasitakoarekin, honakoa planteatu nahi dute hurrengo ikasturtera begira: “Programa dezente handituko da. Eibarren, historikoki, LH3-tik LH6-ra dauden umeek hartu dute parte, baina datorren urtean ‘Jolashezi’ jarriko dugu mar txan LH1-2 mailakoentzat, astean behineko saioekin. Jolasen bitartez kirol ezberdinen hastapenetara iristea edo gerturatzea izango da horren helburua. Bestalde, aurtten lehenengo, Eskola Kirol Egokitua (EKE) egongo da. Orain arte ez dute Eskola Kirolaren programan parte hartzeko aukerarik izan, baina espero dugu datorren ikasturtean gutxienez talde bat ateratzea, eta taldearen beharretara egokituko gara. Azkenik, Eskola Kirolaren aurtengo eskaintzari eutsi nahi diogu, asteko bi saio eta asteburuetako topaketekin”.



Eurek prestatutakoez gain, beste zenbait ekintzatan hartu dute parte haurrek.

Jarduera bereziak maiatzean

Aurtengo Eskola Kirola maiatzaren 16an amaituko da, baina ikasturteari agur esan baino lehen, jarduera berezi batzuk eskainiko dituzte hurrengo asteetan. “Multikirolaren orduetan egingo dira, arratsalde, baina Eibarko ume guztientzat zabalik egongo diren ekintzak izango dira”, azaldu digutenez.

Horrela, hiru jarduera egingo dituzte: espeleologia Debako Ermitia kobazuloan (LH3-4koentzat,

maiatzaren 18an edo 19an), surf-a Debako hondartzan (LH5-6koentzat, 20an edo 21ean) eta Otxandio-ko Hontza Extrem parkera irteera (LH3-4koentzat 25ean edo 26an, eta LH5-6koentzat 27an edo 28an).

Etzi, maiatzak 10, amaituko da izena emateko epea, beraz, sasoz zabiltzate apuntatu nahi izanez gero. Horretarako, aurreko orriko QR-a eskaneatu dezakezue edo esteka honetara jo: [l.eus/maiatze-kojarduerak](https://www.l.eus/maiatze-kojarduerak).



‘Txillarreko sukaldaria’ gure webgunean ikusgai

S.H. Gaur (maiatzak 8) 22:00etan, *Txillarreko sukaldaria* dokumentala estreinatuko dute Hamaikak, Kanaldudek eta tokiko lau katek (Goiena telebistak, Guka telebistak, 28 kanalak eta GITBk). Horrez gain, gure webgunean (etakitto.eus) dokumentala nahi duzuenan ikusteko aukera izango duzue. Edurne San Martin eibartarrak eta Asier Ibaibarriaga ermuarrak *Txillarreko sukaldaria*. *Pello Rubiori elkarrizketa* liburua aurkeztu zuten iaz (Elkar). Liburuarekin batera, Txillarreko sukaldaria dokumentala ere sortu zuten. Ikus-entzunezko lan hori Euskal Herriko hainbat herritan eta hiritan eman dute azken hilabeteetan. Pello Rubio da protagonista nagusia. Elkarrizketa-formatuan argitaratutako lanak gatazka politikoaren garaian izandako elkarrizketa isilen garrantzia azalerazen du.



Eskubaloiairen Eguna musikarekin girotuko dute

S.H. Eibar Eskubaloiak kalera eramango du kirola datorren astean, baina ez hori bakarrik, musika ere jarriko duelako. Horrela, maiatzaren 15ean, barixakua, DJ Agusek musika pintxatuko du Untzagan, 20:30etik aurrera. Eta hurrengo egunean, 16an, 20:00etatik aurrera, bi taldek joko dute plazan: Urkarik eta Slidek (Maitane Camposek egindako argazkian).



Zabalik jarraitzen du Altxorraren Bila ekintzan izena emateko epeak

S.H. Maiatzaren 22an, ostirala, antolatuko du ...eta kitto! Euskara Elkarteak aurtengo Altxorraren Bila jolasa eta oraindik ere eman daiteke izena. 4 eta 10 urte arteko haurrek har dezakete parte helduek lagunduta. Taldeka eman behar da izena eta taldeak, asko jota, 10 kidekoak izango dira eta ezinbestekoa izango da helduetako batek, gutxienez, ahozko zein idatzizko euskara ulertzea. Errebalen hasiko da jokoa 17:30ean (ordu laurden lehenago bertan egotea komeni da), bertan jasoko dute taldeek lehenengo pista eta, hortik aurrera, asmatzen joan ahala pista berriak jasoko dituzte helmugara iritsi arte. Amaieran talde guztiak jasoko dute saria. Maiatzaren 15era arte eman daiteke izena telefonoz (943200918), mezuia bidalita (elkar-tea@etakitto.eus) edo www.etakitto.eus webgunean.

Urki jaietako kontzertuak eman dituzte ezagutzera

S.H. Ekaineko lehen asteburuan (5ean eta 6an) ospatuko dira Urki auzoko jaiak eta, oraindik hilabete falta bada ere, jai-batzordea hasi da ekintzak zehazten. Horrela, bertan egingo diren kontzertuen berri eman du aste honetan, sare sozialen bitartez,



eta hauek izango dira: ekainaren 5ean (barixakua), 22:00etatik aurrera, Lordwitch, Rythmachin eta Urkari taldeak arituko dira. Eta ekainaren 6an (zapateria), 23:00etan hasiko da Estopaos taldearen kontzertua.



Maiatzaren 21etik 30era ospatuko da Euskal Jaia

S.H. Klub Deportiboko kultura batzordeak antolatutako Eibarko 61. Euskal Jaiak herriko kale, plaza eta kultur gune nagusiak hartuko ditu hamar egunez. Ekimenak Eibarko Udala, Arrate Kultur Elkarte, Dantzan, Jaixak Herrixak Herrixandako, Eibarren Akebai, Gure Esku, Eibart eta Debemen ditu laguntzaile, eta aurten ere euskal kulturaren adierazpide ugari bilduko ditu. Maiatzaren 21ean hasiko da jaiak, 19:00etan, Klub Deportivoan, *Lourdes Iriondo bideurratzaile* hitzaldi eta kantaldiarekin, Alex Gurrutzagaren eskutik. Hurrengo egunean, maiatzaren 22an, 18:45ean, *Eskailarapekoa* bakarriketa eskainiko dute Idoia Torregaraiak eta Mirari Martiarenak, Depor parean. Bakarriketa gehiago egingo dira maiatzaren 23an, Lander Varona, Beñat Iturbe eta Jone Bengoa eibartarraren eskutik. Ondoren Ur eta Mixerabliak taldeen kontzertuak hasiko dira. Hurrengo egunean, *Oteiza 14 apostolu* filmaren proiektzioa, aurkezpena eta kolokioa egingo dira, Portalean. Ondoren, 19:30ean, Untzagan, *Apostoluen sokadantza*, Dantzan elkartearekin elkarlanean Juan Antonio Urbeltzek gidatutako ikuskizuna aurkeztuko dute.

Egitarauaren baitan beste hauek egingo dira: Gari-koitz Goikoetxeren *“Esnatu ala hil”* hitzaldia (maiatzaren 28an), kale animazioa (bertso-triki poteoa, Mauxitxa Txaranga, txistulariak eta Eibarko gaite-roak) Sorotan Bele Gogoan eta Eibarko Udal Bandaren kontzertuak (maiatzaren 29an). Eta maiatzaren 30ean izango da jaiaren egun nagusia, egun osoko egitarauarekin: artisau eta baserritarren azoka, pala txapelketako finalak, herri kirolak, kale animazioa, Euskal Jaiaren kalejira, dantza jaialdia Joseba Tapia eta hainbat musikari eta dantza taldearekin, Depor parean dantzaldia Eingo taldearekin, larrain-dantza herrikoia, Iskra Selectors taldearen binilo saioa, Itziarren Semeak eta Mugi Panderoa taldeen emanaldiak...



Skabidean taldekoek hitzaldia emango dute gaur

S.H. Jaixak Herrixak Herrixandako jai batzordeak antolatuta, Skabidean talde iruindarreko kideek hitzaldia emango dute gaur, 19:00etan, Depor tabernako beheko solairuan. Skabidean 2012an Iruñean sortutako ska eta rocksteady taldea da. Funk doinuak ere lantzen dituzte, Jamaikako musikaren erritmo sinkopatuak oinarri hartuta eta bestelako estiloekin uztartuz. Taldeak euskarazko kantuak ekoitzi ditu nagusiki, eta Euskal Herriko hainbat txokotan eman ditu kontzertuak azken urteetan.

Hainbat aldaketa izango dira Coliseoko zine-emanaldietan

S.H. Coliseo antzokiko arduradunek jakinarazi digutenez, hainbat ekitaldiren eraginez aldaketak egongo dira ohiko zine emanaldietan: bihar (zapatua, hilak 9) antzerkia egongo denez (19:00etan Txalo-ren Escapero Room taularatuko da), ezin izango da areto handian pelikularik eman. Eta, astelehenean, Umeen Bertso Jaialdia egingo da, 18:00etan eta, horren ondorioz, areto handiko saioa 20:30era atzeratu behar izan dute. Bestetik, gaur (barixakua, hilak 8) jarriko dituzte salgai Gaetano Donizettiren *Lucia di Lammermoor* operaren emanaldi diferiturako sarrerak. Proiektzioa hurrengo barixakuan, maiatzaren 15ean izango da. Vienako Estatuko Operak 2019an eskainitako ikuskizunaren grabazioa eskainiko dute. Olga Peretyatkok antzezten du Luciaren paper zorrotza, Juan Diego Florez eta George Peteanekin batera, eta Evelino Pidoren musika-zuzendaritzapean, lehen mailako aktore taldea bildu zuen emanaldiak.



ERRAZAGOA

8	1		5					
5			6	7				
4	2	7			9			
	8	4						1
3						6	7	
			1			9	8	4
				3	5			2
					2		5	6

SUDOKUA


6	5	3	2	8	4	6	7	1
2	4	8	9	3	5	7	1	6
4	7	9	8	4	6	7	1	3
9	6	7	2	4	8	6	7	3
5	1	6	3	9	1	8	4	5
8	4	7	5	6	2	3	1	9
4	2	7	8	1	9	5	6	3
5	9	3	6	7	4	1	2	8
8	1	6	5	2	3	4	9	7

8	9	7	1	6	3	5	2	4
2	6	4	8	5	9	3	1	7
1	3	5	2	7	4	6	8	9
3	5	2	4	8	7	1	9	6
6	4	8	9	2	1	7	5	3
6	4	8	9	2	1	7	5	3
9	7	1	6	3	5	2	4	8
5	1	6	3	5	2	4	8	9
7	8	3	5	9	2	4	6	1
4	2	9	3	1	6	8	7	5

ZAILAGOA

	2			1		8		
		3	5		2	4		
5			7					
9			6		5	2		
		2	4		7			6
					4			9
		4	8		9	3		
	7		6				2	

LABIRINTOA



Maiatzak 8 - Maiatzak 14

BARIXAKUA 8

BARIXAKUAK JOLASIAN

17:00/18:00 Bi eta zortzi urte bitarteko haurrentzat jolasak, doan. ...eta kitto! Euskara Elkarateak antolatuta. Urkizu.

AURKEZPENA

18:30 Euskal Herriko Gaztetxe eta Gazte Asanbladen Topaketen aurkezpena. Ondoren, tribiala eta mojitada. Eibarko Gaztetxian.

GALIZIAKO JAIK

19:00 Jai batzordearen tabernaren irekiera ofiziala. Haur animazioa, pailazoeekin (Lekim). **19:30** Gaitapotea, Os Galaicos eta Eibarko Trikitilarien eskutik. **22:00/00:30** Musika eta dantzaldia, Ritmo Joven orkestrarekin. **00:00** Queimada. **00:30/01:30** Musika eta dantzaldia, Ritmo Joven orkestrarekin. Urkizun.

ARGAZKILARITZA MAIATZEAN

19:00 Argazkilaritza Maiatzean egitarauko erakusketak zabaltzea. Portalea (erakusketa aretoa) eta Topaleku.

HITZALDIA

19:00 Skabidean taldekoen eskutik. Antolatzailea: Jai-xak Herriak Herrixandako. Depor taberna.

ZAPATUA 9

AZOKA

10:00/14:00 Udaberriko bigarren eskuko azoka. **11:30/14:00** Haurrentzako tailerra (doan). Errebal Plaza.

ARGAZKILARITZA MAIATZEAN

10:00/13:45 eta **16:00/20:00** Argazkigintza dokumentalari buruzko tailerra, Javier

Sanchez Mongeren eskutik. Portalea.

ESKULAN TAILERRA

10:00/12:00 Kumihimo pulterak. 10-16 urtekoentzat. Plaza mugatuak. Ipuruako Merkatu Plaza.

GALIZIAKO JAIK

11:30 Haurrentzako chaves jartualdia mistoa (8-12 urte). **12:00** Herri kirolak. **13:00** Igel-toka txapelketa, haurrentzat. **13:30** Igel-toka txapelketa, helduentzat. **16:00** Chaves jaurtiketa mistoa, helduentzat. **18:30** Galiziako dantza eta musika erakustaldia, Os Galaicos eta Eguzki-Fole gaitari-taldearen eskutik. **22:30/00:30** Musika eta dantzaldia, Solara orkestrarekin. **00:30** Queimada. **01:00/02:00** Musika eta dantzaldia, Solara orkestrarekin. Urkizuko parkea.

MUSIKA

12:30 Koralito abesbatzaren kontzertua. Doan. Ipuruako Merkatu Plaza.

ANTZERKIA

19:00 'Escape Room' (Txalo Produksioak). Euskaraz. 12 euro (8,5 euro Coliseoaren Laguna txartelarekin). Coliseo.

SANTAKURUTZEKO JAIK

20:30 Bertso afaria, Xabat eta Joanes Illarregi bertsolariarekin. Depor taberna.

DOMEKA 10

GALIZIAKO JAIK

12:00 Galizia eta Euskal Herriko musika eta dantzak, Kezka dantza taldearen, Eibarko Trikitilarien eta Os Galaicos taldearen eskutik. **14:00** Lore-eskaintza Castelaoren

monumentuaren parean.

15:00 Luntxa, agintariekin. **16:30/18:30** Mahai-jokoan erakustaldia, Odisea elkar-tearen eskutik (elkar-tearen ludotekan, Bittor Sarasketa kalean). **18:00/22:00** Musika-saioa, Miren Gisasola DJ-arekin. **22:00** Jai-batzordearen taberna ixtea eta jaien amaiera. Urkizuko parkea.

ASTELEHENA 11

TALDE TAILERRA-SOLASALDIA

17:00/19:00 "Justiziaz zaindu: kontratazio arduratsua etxeko lanetan eta zain-tzan". Jarduera irekia eta doakoa. Andretxea.

BERTSOLARITZA

18:00 Umeen Bertso Jaialdia. 3 euro. Coliseo.

KANTU-SAIOA

19:00 "Euskal kanta tradizionalak" saio irekia. Arrate Kultur Elkartea.

MARTITZENA 12

MINTEGIA

08:45/13:25 Euskararen sozializazioa eta transmisioa XVI. Mintegia, ...eta kitto! Euskara Elkarateak antolatuta. SD Eibar-en prentsa aretoa.

DEBABARRENEKO ESKOLARTEKO ANTZERKIA

15:00 "Etzerik txikiena", Yarleku konpainiaren eskutik. Coliseo.

HERRITU

18:30/19:30 Gure Eskuren Herritu ekimenarekin bat egiteko mahaia. Eibarko Klub Deportiboa (1. solairuko lokalean).

LITERATURA

19:00 Idazlearekin Harixa Emoten: Naroa Zubillaga, "Horma" liburuarren itzultzailearekin. Ainhoa Aldazabalek zuzenduko du saioa. Antolatzailea: Eibarko Liburutegia eta ...eta kitto! Euskara Elkar-tea. Portalea.

EGUAZTENA 13

LORE-BANAKETA

11:00/13:00 Neguan lora-tegiak apaindu dituzten landareak doan banatzea. Untzaga (harmailen alde).

HITZALDIA

18:00/19:30 "Heteroarauaz eta genero disidentziak". Hizlariak: Iñigo Etxezarreta eta Elene Lopategi. LGTBQ+ Kolektiboaren Eskubideen Aldeko Kanpaina. Euskaraz. Jarduera irekia eta doakoa. Andretxea.

BERTSOLARITZA

18:00 Umeen Bertso Jaialdia. 3 euro. Coliseo.

EUSKAL JAIK

19:00/21:00 Larrain-dantza errepasoa. 5 euro (Arrate Kultur Elkarteko bazkideek dohainik). Arrateko Andra Mari ikastetxea.

EGUENA 14

ANTZERKIA

15:00 "Kimu" (Marie de Jongh Teatroa). Euskaraz. Debabarreneko XLI. Eskolarteko Antzerki Erakusketak. Doan. Coliseo.

ODOL-EMATEA

16:50/20:50 Untzaga jubilatutxetxea.

ZINEA COLISEO



"La plaga"
DRAMA. INTRIGA

2025/Australia/95'
Zuzendaria: Charlie Polinger
Aktoreak: Everett Blunck, Joel Edgerton, Elliott Heffernan
Kirola. Nerabearoa.
Eskola-jazarpena

1 ARETOA

- **9an:** 17:00, 19:45
- **10an:** 17:00

ANTZOKIA

- **10ean:** 20:00
- **11an:** 20:30



"Incontrolable"
DRAMA

2025/Erresuma Batua/120'
Zuzendaria: Kirk Jones
Aktoreak: Robert Aramayo, Shirley Henderson, Maxine Peake
Benetako gertakarietan oinarritua. Gaixotasuna

1 ARETOA

- **9an:** 22:30
- **10ean:** 20:00
- **11an:** 19:30



"Couture. Alta costura"
DRAMA

2025/Frantzia/106'
Zuzendaria: Alice Winocour
Aktoreak: Angelina Jolie, Anyie Anei, Ella Rumpf
Istorio gurutzatuak. Moda.
Gaixotasuna

2 ARETOA

- **9an:** 19:45, 22:30
- **10ean:** 17:00, 20:00
- **11an:** 19:30



"David. Una aventura gigante"
ANIMAZIOA.

2025/Hegoafrika/109'
Zuzendariak: Phil Cunningham, Brent Dawes
Antzinako Egipto. Erlijioa

2 ARETOA

- **9an:** 17:00

ANTZOKIA

- **10ean:** 17:00

FUNEUSKADI
Funeraria mugica

TANATORIO EIBAR

24 orduko zerbitzu iraunkorra T. 943 201 951
www.funeuskadi.com

Eibar:
Oraola, 27

Eibarko bulegoa:
Bidebarrieta, 20

FUNERARIA MUGICA
Funeraria mugica

TANATORIO KREATIBO ELGOIBAR

24 orduko zerbitzu iraunkorra T. 943 201 951
www.funeuskadi.com

Elgoibar:
Xaxillon, s/n. SIGMA Industriaidea (Diasoko hilerriaren ondoan)

Ermuako bulegoa:
Marques de Valdespina, 16

Eibar · Elgoibar · Ermua · Bilbo · Barakaldo · Leioa · Getxo · Sestao · Portugalete · Santurtzi · Basauri · Galdakao



Jose Mari Bedayo "Txipi"

1. URTEURRENA
2025/05/11

"Zu juañ ziiñan, baiña zure indarra eta maittasuna gurekin dagoz betiko"

- ETXEKOAK -



943 20 67 76

publizitatea@etakitto.eus



Zure senide edo lagun bat zoriontzeko aukera ezin hobea eskaintzen dizugu. Argazki arruntaren prezioa 4 eurokoa izango da; argazki bikoitzarena, 8 euro (bazkideentzat %20ko deskontua). Argazkia eta testua eguaztena baino lehen egon beharko da **...eta kitto!**-n. Zorion-agurrak **etakitto.eus** webgunean ere argitaratzen ditugu.



Zorionak **MARIA!** Gaur, maiatzak 8, 10 urte! Besarkada haundi bat zure famelixa eta lagunentz partez. Asko maite zaittugu printzesa!



Zorionak **JULEN,** gure bihotza!!! Maiatzaren 10ean 4 urte beteko dozuz. Segi hain jatorra, alaia eta maitekorra izaten. Musu potoloa Maitane, aita eta amarentz partez.



Zorionak **MALEN!** Bihar zapatua, 9 urte mando beteko dozuz. Neska haundi. Maite zaittugu. Aiuri, Aita eta amarentz partez.



Zorionak **CARO!** Gure etxeko printzesak 11 urte bete zittuan maiatzaren 6xan. Zorionak, bihotzez maite zaittuen famelixarentz partez!



Zorionak **LEIRE** (45) eta **Pol** (7). Martitzenian bete zenduzen urtiak bixok!! Patxo potolo bat famelixa danantz partez, batez be Pello eta Nilentz partez.

ESKERTZAK ETA URTEURRENAK
Urkizu, 11 - solairuarte
688 62 76 89
publizitatea@etakitto.eus

Zure umore garratzarekin eta "alguien tiene que hacerlo" esanez gogoratuko zaitugu. Libre mendian, gurekin geratzen zara

Guiller
2026/05/05

Iragarki laburrak



943 20 67 76

aldizkaria@etakitto.eus

Atal honetako iragarkiak doan dira, etheen, lokalen, autoen eta irakaskuntzako eskaintzen kasuan izan ezik. Azken horietako PREZIOAK, beti ere 4 ASTERAKO, honakoak dira: Etxeak, lokalak eta garajeak: alokatu, 12 euro; saldu, 17 euro. Autoak eta irakaskuntzako eskaintzak: 12 euro. Doako iragarkietan, 12 hitz onartuko dira gehienez.

1. ETXEBIZITZA

- 1.1. Salgai
- 1.2. Errentan
- 1.3. Konpartitzeko
- 1.4. Etxe trukaketa

2. MOTORRA

- 2.1. Salgai

3. LOKALAK

- 3.1. Salgai
- 3.2. Errentan
- 3.3. Konpartitzeko

4. LANA

- 4.1. Lan bila
- 4.2. Langile bila

5. IRAKASKUNTZA

- 5.1. Eskaerak
- 5.2. Eskaintzak

6. DENETARIK

- 6.1. Salgai
- 6.2. Eman
- 6.3. Galdu/Aurkitu
- 6.4. Bestelakoak

1. ETXEBIZITZA

1.2. Errentan

- 2026ko udarako etxea alokairuan Ondarroan. Aukera desberdinak aztertzeko moduan. Informazio gehiago: 676980424.

3. LOKALAK

3.1. Salgai

- Garajea salgai Juan Gisasola kalean, probaderoaren azpian. 686633523.

4. LANA

4.1 Lan bila

- Emakumea eskaintzen da orduka garbiketa lanak egiteko edota gabaz nagusiak zaintzeko. 613314603.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaindu edota etxeko lanetarako. 631793773.
- Emakumea eskaintzen da etxeko lanetarako, interna bezala edota orduka. Baita garbiketa lanetarako eta umeak zaintzeko ere. 614671434.
- Emakumea eskaintzen da orduka nagusiak zaintzeko edota garbiketa lanak egiteko. Ziurtagiri soziosanitarioarekin. Berehala lan egiteko prest. 633101852.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko edota garbiketa lanak egiteko, baita asteburuetan ere. Berehala lan egiteko prest. Ziurtagiri soziosanitarioarekin. 642578943.
- Emakumea eskaintzen da etxeko lanetarako, interna bezala

edota orduka. Baita garbiketa lanetarako ere. 602715786.

- Emakumea eskaintzen da etxeko lanetarako, interna bezala edota orduka. Baita garbiketa lanetarako. 688 74 02 01
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaindu edota etxeko lanetan jarduteko. 642852854.
- Emakume euskalduna eskaintzen da nagusiak edota umeak zaintzeko. Ziurtagiri soziosanitarioarekin. 614339369.
- Mutil euskalduna eskaintzen da pertsonak zaintzeko, baita gauzez ere. Bost urteko espe-rirentziarekin. Ziurtagiri soziosanitarioa. 652361868.
- Emakumea eskaintzen da pertsona nagusiak zaintzeko edo interna bezala lan egiteko. Erreferentziekin. 643342975.
- Emakumea eskaintzen da pertsona nagusiak zaintzeko edo interna bezala lan egiteko. Erreferentziekin. 632642320.
- Emakumea eskaintzen da ospitaletan dauden nagusiak zaintzeko. Orduka. 641837075.

4.2. Langile bila

- Fisioterapeuta eta estetiziena behar da Eibarko ileapaindegri batean. 943208125.
- Ermuko hortz klinika batek higienista/auxiliarra behar du, lanaldi erdirako. Bidali zure CV hortzklinika.4@gmail.com
- Emakumea behar da pertsona nagusi bat zaindu eta laguntzeko. Beharrezkoa paperak eta titulua edukitzea. Interna bezala edo asteburuak. Esperientzia baloratuko da. 627307168.

- Gastesi hortz-klinikan odontologo bila gabiltza. Interesatuak, bidali kurrikuluma mesedez: clinica@gastesidentales

5. IRAKASKUNTZA

5.2. Eskaintzak

- DBH eta Batxilergoko klase partikularrak ematen dira. 678937827 eta 943584166. Patrizia.
- Matematika, Fisika eta Kimika klase partikularrak ematen dira LH, DBH, Batxilergo eta Selektibitatea prestatzeko. Gehienez lau laguneko taldeak. Urteetako esperientzia. 615705945. Iratxe.
- DBH, Batxilergo eta Unibertsitateko Matematikak, Fisika, Kimika... klaseak ematen dira. Banakako edo 2-3 ikasleko klaseak. Goizez ikasteko aukera. 677592509. Alberto.

6. DENETARIK

6.1. Salgai

- Koltxoia salgai, 135x190koa, 75 eurotan. iraurgi55@gmail.com

2026/06/12

IMH CAMPUS



BATZAR OROKORRA

Eskualdeko 60 enpresa baino gehiago elkartuko gara

PROGRAMA



Sarrera irekia

Neinor HOMES

EIBAR

ARRATE HOMES
ERREALITATEA
DA



**2 eta 3 logelako
etxebizitzak**

**Bisitatu pisu pilotua
eta estreinatu etxebizitza
hilabete honetan bertan**

Gourmet aretoa | Gimnasioa

**APARKALEKUAK
ESKURAGARRI**

900 11 00 22 • neinorhomes.com



EIBAR

Udala | Ayuntamiento

EIBARKO MUSIKA ESKOLA

4 urtetik aurrera, adin mugarik gabe

2026-2027

MATRIKULA BERRITZEA

Maiatzaren 13tik 22ra

IKASLE BERRIEN MATRIKULAZIOA

Ekainaren 1etik 19ra

Musika eta Mugimendua 4, 5 eta 6 urtekoentzat

Instrumentuak Musika Taldeak

Koruak Musika Hizkuntza Musikoterapia

Musika Hizkuntza gazte eta helduentzat

Musika Tailerra +65 urtekoentzat

musikaeskola@musikaeskola.eibar.eus

943702725